

Euskal Dialektologia

FLV aldizkarian

IÑAKI CAMINO*

1. AITZIN SOLAS

Errekapitulazio lan batek egin denari edo eginik dagoenari begira jarrarazi ohi gaitu: horrelakoetan txirrinta izaten du batek, egin denaz bezainbat, egin ez denaz, egin nahi izan ez denaz, ezin egin izan denaz edo egin zitekeenaz mintzatzeko.

FLV aldizkaria 1969an sortu zenerako *Principe de Viana* historia aldizkaria ibilbide luzea egina zen, Espainiako gerra zibila bukatu orduko 1940an argitaratzen hasi baitzen. *Universidad de Navarra* ikastetxea *Fontes* sortu baino bederatzi urte lehenago ezarri zuten Iruñean Elizak eta *Opus Dei* erakundeak. Orain Erriberara ere ingurarazi nahi den Nafarroako Unibertsitate Publikoa, berriz, 1987an eratu zuen Iruñean Nafarroako Gobernuak. Erakunde hauek guztiak ospe zientifiko eta politikoko handikoak ditugu Nafarroako gizaratean, baina Euskal Hizkuntzalaritzari eta Euskal Filologiari ez diete aukerarik eman Iruñean lizentziatura bat edukitzeko; gauzak gurean bestelakoak izan balira, goi mailako ikasketa balizko horiek indar eta berme sendoa emanen zioketen *Fontes* aldizkariari. Unibertsitaterako ere Europako konbergentziaren hotsak entzun ditugunez, argi eta garbi gelditu da gaurgero Iruñean balizko lizentziatura ezartzeko aukerarik ez dagoela.

FLV aipatu orduko, Jose Maria Satrustegi antropologialari eta euskaltzaina datorkigu gogora, haste-hastetik aldizkariaren kolaboratzaile eta hemezortzi urtean zuzendari izan zena, baina ezin atzendu da, bestalde, aldizkariari lehen bultzadak emateko garaian, Koldo Mitxelenak ere bere eginahala eta bere laguntza eskaini zuela. Satrustegiren helburua Euskal Herritik kanpoko eta etxe barreneko ikertzaileak aldizkarira erakartzea izan da; Nafarroa ofizialak euskal ikasketei ukatzen ziena nola edo hala berdintzeko lana, apez arrua-

* Euskal Herriko Unibertsitatea.

zuarraren bizkar gelditu zen, beraren ahalaren, eraginaren eta indarraren araber.

Adierarik zabalenean harturik, Euskal Dialektologiak ez du lekurik falta izan aldizkarian. Bizkaiko, Gipuzkoako, Lapurdiko eta Zuberoako euskara usu agertu da eta Arabakoak ere izan du bere lekua, hondarreko hamar urteotan bereziki. Nafarroa Beherekoa guti agertu da. Nafarroa Garaiko berri, aldiz, lehenetik hondarreko zenbakia arte atera da, ausarki gainera. Corpusari dagokionez, datuak eta idazkiak ere, XV. mendetik XX.era bitartekoak hainbat eta hainbat argitaratu dira, noiz iruzkinak erantsirik, noiz testua bere horretan aurkezturik: izenburuak berak dioenez, *studia et documenta* dira aldizkariaren aztergaia. Bestalde, Euskal Dialektologiaren inguruko berriak eta ikertzaile nagusien gutun historiko garrantzizkoak ere agertu dira *Fontes*-en.

Gramatika-osagaiei dagokienez, euskalkietako azentu eta entonazio konutak, aditzaren morfologiakoak eta lexiko eta toponimia gaiak gogotik argitaratu dira, fonologiakoak, izenaren morfologiakoak eta sintaxikoak baino gehiago.

Bestalde, herri bateko euskararen deskribapena bederatzi aldiz egin da; eskualde bat aztertzen duen lana, berriz, sei aldiz, gehienak azken bi urteetan, Gasteizko Filologia Fakultateko doktoretza-tesien ondorioz. Eremu zabal bat aztertzen duten lan supradialektalak guti egin dira, lau, eta denak azken urteotan. Euskal Herri osoko dialektologia lanak ere, lau baizik ez dira, baina kalitate handikoak. Lehen zenbakietarik goiti kartografia lan ikusgarriak ageri zaizkigu: zortzi aldiz egin dira. Dialektologiaren beraren azterketak, alderdi teoriko-metodologikoaren barrunbeak eta zutoinak aurkezten dituztenak, nahi baino gutiago dakuskigu: guk uste lauzpabost lanetan ageri diren, lau ikertzailek ondurik.

Izan ere, bere burua jasotzen Euskal Herrian nahikoa lan izaten ari den dialektologiak ez du oraino bere mailarik nabarmenena erdietsi, baina egin dituen aitzinamendu batzuen lekuko gertatu da *Fontes* aldizkaria, ezin baitzitekeen bestela: Koldo Zuazok egin euskalkien sailkapen berria da adibide egokia. Izen handiko ikertzaileak ditugu Jacques Allières, Nils M. Holmer, José Ignacio Hualde, Koldo Mitxelena, Georges Rebuschi edo Rudolf P. G. de Rijk, besteak beste, baina jaun hauen lanak zeharka baizik ez du ukitu Euskal Dialektologia: egia esan behar baldin bada, errenteriarrek gehiago besteak baino; Mitxelenaren dialektologiako lan batzuk bera hil ondoan argitaratu dira aldizkari honetan.

Ondoko lerroetan Iruñeko gobernuaren aldizkarian Euskal Dialektologiaren argitaratu diren lanez osoko ikuspegia emateko eginahala dakargu.

2. EUSKALKIEN HISTORIA

Euskal Dialektologian arazo historikoen gaia guti landu da, eginkizun dirau; nabarmena da zein guti ageri den *Fontes* aldizkarian. 1981. urteko *ASJU* aldizkariko “Lengua común y dialectos vascos” artikulua jarraipen kutsua hartzen du Satrustegik 1992.ean *Fontes*-en argitaratu zuen Mitxelenaren zirriborro batek. Itxuraz hitzaldi bat emateko prestatua dirudi; Mitxelenaren azken urteetan idatzia izan daitekeela uste du Satrustegik. Bertan hizkuntzak dialektoetan banatzeko duen joeraz dihardu: hainbat eremutako hiztunek elkarren arteko harremanik eduki ezean, hizkuntzak jasaten duen dialektaliza-

zio bilakaeraz. Hondarreko mila urteetan euskarak banatze bideari ekin dio, baina halaz ere, euskalkiek batak bestearekin harreman zuzena izan dutela eta elkarrekiko berrikuntza ugariaren partaide direla defendatzen du.

1981eko artikuluan legez, Kristo ondoko 250 urtetik V edo VI. mendea arte euskal jendeek beren artean aski harreman izan zutela eta gizarte homogeneizazio horrek hizkuntzaren batasunarekin lotura hertsia eduki zukeela deritzo; euskaldunen arteko bereizketa gerora etorri zela dio, komunikabideek erdaren sarbidea erraztu zutenean, administrazioek eta eliz-banaketek Euskal Herriko jendeak banaturik, batzuk besteetarik urrundurik utzi zituztenean.

Idazki zaharrik izan ezik, frogabidea ezaugarrien kronologia erlatiboa da, zeinak hotsen arloan baitu benetako emankortasuna. Euskalki guztietan gertatu berrikuntza komunak gauzatu aitzineko euskara bateratuaren ezaugarritzat, ohiko bost bokalak eta kontsonanteen arteko *fortes / lenes* bereizketa aurkezten ditu, 1800 edo 2000 urte lehenagokotzat bederen jotzen dituenak; baita morfema ergatiboa izenetan ere, eta *n-a-bil* edo *n-a-kus* erako adizkiak; iraganeko eta oraineko aditz morfemak, gehi *l-* alegiazkoa eta *b-* agintezkoa ere, orduko ezaugarritzat ditu. Aldiz, singularreko eta pluraleko mugatzaileak berrikuntza bateratutzat jotzen ditu: euskararen eremuaren ondoko hizkuntza erromantzeetan ere hala gertatu da eta eragin ahal izan dute euskarari; bestalde, euskal pertsona, leku edo jainko izen zaharrek ez daramate artikulurik. Egitura mugagabeetan egun erabiltzen den deklinabideko *-ta-* artizkia ere, eta baita aditz sistemako egitura alokutiboa ere, berrikuntzatzat ditu. Egia esan, zirriborro hau ez doa edukietan eta aurkikuntzetan 1981eko artikulutik haratago, hitzaldi baterako egina dirudi eta Mitxelena bizi izan baltz, beharbada ez zen argitaratuko.

3. EGOERA ZAHARRAREN LEKUKOTASUNA

Patxi Altuna euskaltzainak, Jose Inazio Aranak eta Luis Luziano Bonapartek 1876-1887 artean elkarri idatzi zizkieten gutunak argitaratu zituen 1985ean; Julio Urkixok eta Nikolas Alzolak ere argitaraturik zuten lehenago bat edo beste. Euskal Herriaren XIX. mendearen bukaeran euskaltzaleek eta euskalariak dialektologiarekiko zuten kezka erakusgarri diren aldetik, gutunon balio historikoa nabarmena da. Bonaparteren jokoera eta jarrera usu inplizituen arrazoibideak ezagutzeko, gutunetan ematen dituen argudioak eta iritziak interes handikoak dira. Idatzizkorako euskalki ahalik eta garbienak eta iragazkaitzenak maite zituen, ondoko dialektoen eraginik edo kutsurik gabekoak; honela, Bizkaiko testuan nahiago zuen *bellegi* hitza erabiltzea *ori* baino, biak Bizkaikoak izan arren; izan ere, *bellegi* ez bezala, gainerateko mintzoetan *ori* guztiz hedaturik baitago. Hitzberriak ere, *megope* 'izpiritua', *irurtasun* 'trinitatea', *igerle* 'profeta', herriak erabiltzen ez dituenak, ez zituen gogoko apezei egiteko agintzen zizkien itzulpen dialektaletan; iduri luke euskalkien gainetik finka daitekeen idazteko euskara ereduaren ideiak ez zuela estimu handirik Bonaparteren baitan. Alderdi lektalaren konbinazioei dagokienez, berak ezagutu berriemaile euskaldun xeheen euskaratik eredu idatzizkora edo jantziagora ez zuen alde handirik nahi printzeak, ez zuen euskalkietarik aberastu euskara osatuagoaren nahirik ageri. Aztergai gelditzen da ida-

tzizkoan euskalkiak ez nahasteko Bonaparteren joera honek garai hartan eta ondoren idazleen artean zer eragin eduki zuen.

Jakina denez, Bonaparteren irizpide teoriko-metodologikoak ez dira guztiz esplizituak; Mitxelenak dioenez (*FLV* 58: 181):

Lo malo es que... nada podemos saber acerca de las isoglosas que en cada caso se han tenido en cuenta para que los límites de dialectos y subdialectos pasen entre unos puntos y otros. No es que falten los comentarios aclaratorios en distintos pasajes de las publicaciones de Bonaparte, pero éstos han de ser buscados cuidadosamente en obras muy distintas y por lo general no pecan de demasiado explícitos.

Mintzoak bata bestetik bereizteko eta euskalki jakin baten adigaia intelektualki finkatzeko zerabilen estrategiaz ere, zerbait jakin daiteke bere gutunetan arakaturaz gero: XIX. menderako aski gipuzkeraturik zekusan Irun, Lezo eta Oiartzungo euskara, baina herriotan *du* aldaera erabiltzen baita, hiruo-tako hizkera iparraldeko goi-nafarreran kokatzekoa dela zioen. Bestalde, egungo dialektologialari batzuk ez bezala, hitzen erabileraz eta erabilerarik ezaz arduratzen zen: garrantzia ematen zion hitz edo aldaera bat nonbait erabiltzeari, baina baita leku jakin batean ez erabiltzeari ere; hitz hau ala hura falta izate hori zein sintomatikoa izan daitekeen jabetzen zen.

Orobat, bi mapak argitaratu ondoko urteetan printzeak euskalkiez zuen ikuspegi sakontzeko ere baliagarri dira eskutitzok: Baztango eta Erronkari-ko euskararen kokagunearen auziaz dihardu gutunotan. Van Eys-en euskalkien gramatika nola zafratzen duen ere bertan ageri da. Frantziako bigarren inperioa abaildu ondoan printzeak sos aldetik jasan zuen murriztapenak euskal idazkien argitalpenean eduki zuen eragin kaltegarriaren berri ere ageri da.

Bonaparte hil ondoko mendearen ibilbide gehiengan Euskal Dialektologia ez da kalitatean, sakontasunean eta trebatzean sobera nabarmendu. XX. gizaldian Euskal Herriko Atlaserako datuak biltzen hasteko premia hamaikatan aipatu da, bestalde. Kandido Izagirrek Arantzazu-Oñati alderdian bildu zuen hiztegi bikaina iruzkintzen duen saio llabur batean, honakoa dio Z. izenpetzen duen norbaitek *Fontes*-en 1972an:

El panorama de la dialectología vasca no puede decirse precisamente que sea halagüeño. Se cuenta con escasos estudios monográficos, y no parece que a estas alturas se ande muy sobrado de oportunidades para realizar esta tarea de recogida dialectal. El P. Izaguirre fue muy consciente de ello y no quiso dejar el quehacer para otros mejor preparados que no acababan de llegar.

4. JAKINTZAGAIAREN EGUNGO EGOERA

4.1. Dialektologialariak datuak biltzeko eta corpusa osatzeko nahikoa lan edukitzen du. Guztia jaso orduko, ordea, lehen arazoak datozkio: garai bat baino gehiagoko datuak izan ditzake eta erabakiak hartu behar izatekotan, ez da aise lehenatasuna datu garaikideei ala zaharragoi eman behar ote zaien erabakitzea; lanaren izaerak eta helburuek badute honetan zeresana eta garrantzia. Horretaz landa, eskuartera datozen emaitzetan, den-denek ez dute fidagarritasun maila bera izaten; idiolektoaren inguruko arazoak gertatzen dira usu, bereziki trantsizio eremuetako hiztunen ziurtasun linguistikoari dago-

kionez, edo aldaketa bortitzen garaian. Orobat, beste norbaitek lehenago bildu datuetan ere, zehaztasun arazo larriak ager daitezke. Zertan esanik ez, testu idatzietarik hartzen diren datuek ere problematika hau areagotu dezakete: idatzizko sistema batean eragin literario transdialektalak ditugu; Henrike Knörrek dioen bezala, idaztea ekintza eskizofrenikoa baita eta idazlearen eskualdekoak ez diren ezaugarriak eskualdekoekin batera nahaska ager daitezke. Arazo horiek guztiak garbitu ondoan, corpusa hertsu ondoan ere, arazo gehiago etorriko zaizkio oraino dialektologialariari.

Mahaiaren gaina mukurru betetzen duten emaitzetan, alderdi fonetiko-fonologikoa (azentuera eta entonazioa barne), alderdi morfologikoa (izenaren deklinabidea eta elkarketa, aditz nagusien eta laguntzaileen jokabidea, beren morfemena...), sintaxi kontuak eta lexikoaren gaia (hitzak nahiz aldaerak) aintzat hartu ohi dira. Sail horiek guztiak geolinguistikoki norabide berekoak izatea ere ez da beti gertatzen: inoiz ikusiko dugu fonologiako osagai gehienek norabide lektal bat dutela eta morfologiako gehienek bestelakoa dutela: horrelakoetan ez da kontu erraza izaten mintzo bat zein dialektotara sartu.

Datu ugari bildu ohi da eta datu horiek irizpide ugariaren arabera bana daitezke: ezaugarri batzuk berrikuntzak dira, beste batzuk hautuak eta beste batzuk arkaismoak. Ezaugarrietan, lehen esan dugun bezala, batzuk garaikideak dira eta beste batzuk bospasei mende zaharragoak; berebat, ezaugarri batzuk eskualde batekoak dira bakarrik, hori dute beren muga, baina beste batzuk dialekto baten eremu guztira hedatzen dira eta beste batzuek, dialektoen mugak gainditzen dituzte, eremu zabalak harrapatuz. Sistematikotasunari dagokionez, hizkuntzaren gramatikaren eta egituraren barrenean ezaugarri batzuek duten sakontasuna eta inplikazioa handia da, fonologiako, morfologiako edo sintaxiko arauak eratzen dituztelako; hitz edo aldaera soil batek ez du araurik eratzen, ez dago sistemarekiko horren loturik. Badira, gainera, eguneroko mintzoan etengabe ageri eta errepikatzen diren osagaiak eta badira beste batzuk, inoizka baizik entzuten ez ditugunak. Gehiago dena, eta dialektometriaz arduratzen direnek diotena diotela, ezaugarri batzuek muga lektalak eratzen dituzte, desberdintasunak finkatzeko ahala eta gaitasuna dute eta beste batzuek ez: areago geografia-eskualde batera edo muga inguru batera ezaugarri ugari elkarrengana biltzen direnean; dialektologia tradizionalak gune horretan dialekto muga bat ikusteko ohitura du.

Uler dezakegunez, ezaugarrien izaeraren eta eremu dialektalen tipologia hauen aitzinean, dialektologialaria hautuak egitera beharturik dago eta erabaki bat baino gehiago hartu beharko du: datu guztien artean lanerako batzuk besteen aitzinetik ezarriko ditu, batzuk ia ez ditu aintzat hartuko eta beste batzuk garrantzi handikotzat joko ditu; zer hartu eta zer baztertu, hartzen denaren artetik zeri garrantzi gehien eman eta zeri gutiago, dialektologian tradizio eta prestakuntza handia dagoen herrialdeetan hobeki jakin ohi da gurea bezalakoetan baino.

Bere bidea eraikitzen ari dela egia izanik ere, tradizioaren eta prestakuntzaren aldetik arazoak ageri ditu Euskal Dialektologiak. Egun gaiaz arreta gehixeago dagoela iduri du, urliak edo sandiak ikuspegi eta gai teoriko-metodologikoak aintzat hartzeko eginahala egiten duela, baina guti landu den kontua da hau; ikusi besterik ez *Fontes* aldizkariaren hogeita hamazazpi urtetan arlo honi ia ez zaiola heldu: Mitxelenaren ezagutza dirdaitsua, 1976ko

galdera generiko batzuk, 1998ko erabaki sendo batzuk eta 2003ko hatsarre batzuk dira guk aldizkarian gaindi aurkitu ditugunak. Jarraian oinarri teoriko-metodologikoez aldizkari honetan esplizituki jardun dutenen lanaz arituko gara.

4.2. Koldo Mitxelenak Euskal Dialektologiari egin dion ekarria handia izan da, hala arlo teorikoan nola metodologikoan: diakroniari begira egin zuen bere tesi ospetsu eta emankorra, betiere euskalkiak baliaturik, hauetan oinarriturik. *Fontes*-en argitaratu zituen lan ugarietan, dialektologiaz zehazki diharduen lanik ez da ageri, baina tarteka-marteka, hizkuntza-geografiaz errenteriarrak zeukan ezagutza sakonaren isla sumatzen da.

Matteo Bartoliren eta neo-linguisten ikuspegiaz jabeturik dagoela diosku: ez du uste hatsarre horiek beti-beti emankorrek direnik; dioenez, hizkuntza eremuaren barrenean jendeketa mugimendu handirik gertatu ez denean eta *continuum* egoeretan baizik ez dute balio; ez du baliagarri ikusten hizkuntza indoeuroparretarako. Bazterretako eremuen erakutsia aintzat hartzen du Mitxelenak, hizkuntza-ezaugarri baten geografia-hedadurak bere antzinatasunarekin edo berritasunarekin eduki dezakeen loturaz jabeturik dago. Jarraian dakartzagun adigaiak usu ageri dira haren lanean: ezaugarri baten eremu jarraiak eta hautsiak, toponimoen geografia hedadura eta maiztasuna, berrikuntzen abiagunea, eremu jarraitik urrun ageri diren bi saihetsetako ezaugarri berdinek zaharrak izateko duten aukera, mailaz mailako trantsizioa ageri duten hizkuntza eremuak (euskalkiak, gallego-portugesa eta astur-leonesa, kataluniera eta goi-aragoiera), Donemiliagako lekukotasunetako alderdi fonologikoa Nafarroa Garaiko garai berekoa baino gordetzailagoa dela... Testu dialektalak ere argitaratu zituen: Zaraitzuko kristau ikasbide bat, 1982.ean hain zuzen ere.

Nafarroako eskualde batzuetako azentueraz diharduen 1976ko bere lana, euskararen fonologiaren gai delikatuenetarik azentuarena dela esanez hasten du. Argi ageri da, bestalde, erregelen hurrenkeraren gaiaren garrantzia. Sinkoparen eta azentu kokagunearen aldaketaren artean dagoen lotura aztertze-ko, mintzo bat baino gehiago alderatu beharraz jabetuarazten gaitu: Joakin Lizarragaren XVIII-XIX. mendeetako Eguesibar aldeko azentueratik abiatuturik, Zaraitzukoa, Erronkarikoa eta Zuberokoa alderatzen ditu. Uste duenez, Eguesibarko azentuera berria da, hiatuseko bokaletarik bat bokalardi bihurtu ondokoa; etekin funtzionalik gabeko azentuera da, aldakorra (beharbada funtzionaltasunik ez izatearen ondorioz) eta historiarako argibide guti dakarrena: *(h)arría* > *(h)arrja* > *(h)árrja* azentuaren balizko aldaketaren hipotesia aurkezten du. Bokalen silabagiletasunaren galera, sinkopak, hasperenaren galera, azentuatze oinarria hitz mugagabea ala mugatua hartzea... aipagai ditu. Hiatusen hondamendia 1609 eta 1610eko Iruñeko olerkietan dagoeneko suma daitekeela diosku.

4.3. Euskalkien sistema desberdinen balio objektiboaz galdegiten dio Nicole Moutard-ek bere buruari 1976an: dialektologia estrukturalaren oinarrien arabera, euskalki batzuen eta besteen sistemak nola interpretatu eta nola ikertu behar diren, alegia. Euskalki baterako eraikitzen den sistema fonologiko abstraktua inolako hiztun egiazkorena ez dela jabetzen da ikertzailea, mintzo baten batz besteko sistema baita. Hizkuntza komunikatzeko sistema da eta euskal eremu dialektalaren barrenean hizkeren ugaritasuna dago, baina eskualde batetik bestera, oro har, elkar ulergarritasuna dago.

Sistematikotasunari dagokionez eta fonologiaz diharduela, euskal tipoa definitu ote daitekeen galdegiten du: bokal eta kontsonante arloko salbuespen bakan batzuk salbu, euskal sistema fonologiko orokor homogeen batez mintza daitekeela dio. Sistema hau aho-sabaian fonemaz oso beterik dakusa, ez zaio ekonomikoa iruditzen, ez ahoskeraren eta ez oharmentaren aldetik, fonemen arteko nahasketak eragiten baititu; fonema hauen emankortasun funtzionala apala denez, aho sabaiko bereizketa fonologiko batzuk galtzen ari dira.

Dialektologia estrukturalak sistemaz hainbat eta hainbat gogoeta egin zuen bere garaian: funtsean, dialekto bakoitzaren sistema aintzat harturik, dialektoen arteko alderaketak edota sistema fonologikoen arteko alderaketak bete beharreko baldintza teoriko eta teknikoez hainbat eta hainbat gogoeta agertu ziren. Espainian, esaterako, Gregorio Salvador-en artikuluetan ageri den izpiritua aipa daiteke, baina Emilio Alarcos Llorach, Manuel Alvar edo Diego Catalán ere oso kezkatuak ibili ziren honetaz guztiaz, Europa aldean William G. Moulton, Ernst Pulgram edo Uriel Weinreich kezkatuak ibili ziren bezala. Euskal Herrian bada saio bat 1992an, Karmele Rotaetxerena (*Iker* 7, Euskaltzaindia, Bilbo). Bertan proposatzen den hizkuntza-sistemaren deskribapena eta funtzionamendua berrituz jo zituen egileak eta aitortu zuen, ordura arte onarturik zegoen baino mekanismo konplexuagoa zekarrela; nolahi ere, jabetzen zen gaiaren eta arazoaren sakontasunaz; Rotaetxek proposatu zuen lan ildo honek ez du jarraitzailerik ez emaitza berririk izan.

4.4. Honelako saio teorikoetarik urrun, baina ohiko dialektologian hartu ohi diren erabaki metodologikoetarik hurbil dago euskalki guztiak sailkatzeko 1998an Koldo Zuazok aurkeztu zuen ikuspegia. Gure ustean “Euskalkiak, gaur” artikuluan honako erabakiak nabarmentzen dira: a) Euskal Herrian gaindi dituzten geografia-hedadura handi, ez horren handi eta murrizten arabera hizkuntza-ezaugarrien multzoak ederki bereiztea. b) Lanaren ikuspegi nagusia sinkronian finkatzea, edota zehatzago esanik, datu garaikideak baliatzea, XIX. mendeko edo testu zaharretako datuak saihesturik. c) Hautuak eta arkaismoak baztertzea eta lanerako gehien bat berrikuntzak baliatzea. d) Arauak finkatzen dituzten ezaugarri emankor eta sistematikoei lehentasuna ematea; hartara, hizkuntzaren barrenean sistematikoak eta erregularrak ez diren aldaera fonetikoak baztertu zituen, geolinguistikoki beste bilakabide batzuekin koherenteak izan arren eta ordura arteko Euskal Dialektologian zenbait autorek berak baliatzeko joera nabarmena izan arren. Berebat, etekin handikoak ez diren ezaugarri morfologiko eta sintaktikoak ere baztertu zituen. Halaber, eremu txikietako ezaugarriak baztertu eta eremu handia hartzen dutenak hobetsi zituen.

Ehun eta zortzi tasun baliatu zituen eta, ezaugarri hauetarik bakoitza erabilia den geografia-eremuen arabera antolaketa sendoa egin ondoan, bere mapa ezaguna erdietsi zuen. Jakina da lanaren helburuak baduela zerikusia arestiko erabaki sendo horiekin, Zuazorena Euskal Herri guztiko euskalkiak aztertzeko egitasmoa baita, ez eskualde edo eremu bateko mintzoak ikertzekoa. Honetan osoki bereizten da beraren lana gainerateko ikertzaileenetik; euskalki sailkapen edo banaketa honek izan duen onarpen zabalean neur daiteke lanaren kalitatea. Ondoko urteetan sailkapena eta emaitza hauek finduz joan dira, Zuazoren beraren ikerketen bidez nahiz beste ikertzaile batzuenen bidez.

4.5. Eremu murrizagoak aztertzeo hatsarre batzuk aurkeztu zituen Iñaki Caminok 2003an: hego-nafarrera den bezalako hizkuntza-egitura edo sistema konplexua ikertzeak baitezpadakoak zituen alde zurretiko irizpideak; honela zehaztu zituen: a) Ezaugarriak eksklusiboak ote diren, ea hego-nafarrerakoak bakarrik ote diren. Metodologikoki garrantzia aitortu zien ia eksklusiboak direnei ere, batzuetan Sakana aldean eta beste batzuetan Zaraitzu aldean ere ageri direnei. b) Geografiaren iragazkia gaingitzen ote duten, hau da, ezaugarri banatzaileak diren ala ez diren, ezaugarriok hego-nafarreraren eremu guztia harrapatzen duten ala ez duten. c) Eremu zabalekoak ala murriztagokoak ote diren: Euskal Herrian edo Nafarroan eremu zabala hartzen duten ezaugarriak ote diren. d) Berrikuntzak diren, arkaismoak diren ala hau tuak diren. e) Kronologiaren baldintza, elkarrengandik urrun dauden aldie tako datuak baliatzen diren, ala garaikideak izan behar duten. Funtsean XVIII, XIX eta XX. mendeetako emaitzak baliatu zituen, euskara galdurik baitago hego-nafarreraren eremu gehienez.

Caminok hizkuntza-ezaugarrien sistematikotasunaren eta emankortasunaren gaia, aztertu nahi den geografia-eremuaren hedaduraren arabera daku sa; honela, eremua guztiz handia ez den kasuetan, ezaugarri baten sistematikotasunak eta hedadurak, ezaugarri hori bera ageri den eremuaren neurrien arabera garrantzi gehiago ala gutiago har dezake; eremu ez arras handian, guztiz sistematikoak ez diren eta hedadura murrizta duten ezaugarriek ere garrantzia eduki dezakete, batez ere desberdintasunak edo mugak finkatzen badituzte. Ondoko lanetan, dialektologia egitean testuetako eragin literarioarekin izan behar den arretaz ere jardun du egile honek; lehenago ere badu dialektologiaren teoriak saio bat idatzirik.

5. EUSKAL HERRIA OSORIK

5.1. Koldo Mitxelena hil ondoan dialektologiarekin lotura zuzena duen haren lan bat argitaratu zuen Satrustegik. Inkestagintzaz eta hizkuntza-atlasaz dihardu, 1991n argitaraturik dago eta 1981eko *Euskera* aldizkariko “Encuestas lingüísticas en el País Vasco” eta “Sobre las necesidades de una exploración lingüística de Euskal Herria” artikuluen osagarri har daiteke. Aspaldi idatzitako oharrak dira, euskararen hizkuntza-atlasaren lehen oinarriak finkatzeko bilkurak egin ziren garaikoak, XX. mendearen lehen erditik honakoak. Jakina denez, fonologiaren arloa errenteriarri zegoion eta balizko 498 galdera dakartza Satrustegik argitaratu zuen Mitxelenaren zirriborroak, baina baita morfosintaxiko atal batzuk ere.

Oharrotan, Mitxelenak adierazten du Bonaparteren dialekto-banaketan fonologiako gaiek dialektologia erromanikoan edo germanikoan baino garrantzi gutiago izan zutela; adizki laguntzaileei printzeak eman zien garrantziaren berri ere badakar. Euskal inkestagintzan hitzak mugatzailerik gabe jasotzeko Erronkarin eta Zuberoan egon litekeen zailtasunaz dihardu, lekuko adinekoak eta ahalaz emaztekiak hobesteaz, inkestagunez... Gerora Euskaltzaindiaren EHHA atlasak falta dituen inkestaguneak ageri dira hamarkada batzuk lehenago idatzi Mitxelenaren zirriborroan: Urbina eta Laudio Araban, Burundako Ziordia Nafarroan, eta 1986an ia euskaldunik ez zuten Arakilgo herriak, Gulibarkoak, Txulapaingoak, Olaibarkoak, Artzibarkoak eta Erronkarikoak. Zirriborroan Ipar Euskal Herriko berri ematea berriaz saihestu

zuen errenteriarrak, usu aipatu zuenez, hango lanak ontsalaz etxekoek egin beharko lituzketela uste baitzuen.

5.2. Merezimendu handiko lana argitaratu zuten Aranzadi Zientzia Elkarteko Koldo Artolak eta Josu Tellabidek 1990.ean. Ikerlanak Euskal Herri guztian folk euskararen muga-muga 1980.ean zein zen xeheki deskribatzen digu, herriz herri, auzoz auzo eta inoiz baserriz baserri ibili ondoan. Lanaren hainbat xehetasun interesgarri itzalpean utziko baditugu ere, hona sintesi gisa euskararen muga-marraren nondik norako nagusienak:

Bizkaian aipatzen diren mugako toki euskaldunak honakoak dira: Getxoko Santa Maria, Gobela eta Algorta; Leioa; Erandioko Asua, Erandio Goikoa, Fagueta, Desiertu-Lutxana, Alizaga, Astrabudua, Arriaga eta Goierri; Bilboko Buxa, Buxagoiti, Seberetxe, Bolintxu, Irusta, Larraskitu, San Roque, Saratxe, Artxanda, Otxarkoaga, Arbolantxa eta Berriz; hurrengo herriak ere euskaldunak dira: Arrigorriaga, Etxebarri, Basauri, Ugao, Arrankudiaga, Zollo, Arakaldo, Orozko, Otxandio eta Ubidea. Araba herrialdean, berriz, hizkuntzaren muga Audio aldean, Baranbion, Legution eta ondoko herrietan (Ollerietan, Elosu, Nafarrate eta Urrunaga), Goiainen, Zigoitian (Zestafe eta Akozta) eta Aramaion zehar zihoan.

Nafarroan muga egiten dute Ziordiak Burundan, Irañeta eta Murgindueta herriek, eta Arakilen Ihabarrek, Satrustegik, Ekaik, Egjarretak, Urriazolak eta Irurtzunek. Gulibarren Aginagak, Larunbek eta Ziak, Txulapainen Beorburuk, Usik, Otsakarrek, Osinagak, Gartziriainek eta Untzuk. Euskaldunak aurkitu zituzten Atetzen eta Odietan, Ezkabarteko Anotzen, Olaibarren Olaitzen, Anueko herri frankotan eta Esteribarko hainbatetan, Ilurdotz barne; Erroibarren herri guztietan eta Auritzen guti batzuk; Artzibarren Lusarretan, Hiriberrin, Arrietan, Imizkotzen, Urdirutzen, Uritzen eta Espotzen, eta Irati ibaiaren arroan, Orotz-Betelun eta Azparrenen. Aezkoan herri guztietan eta Zaraitzun Jaurrietan, Espartzan eta Otsagabian gehienbat; Ezkarozen, Orontzen eta Ibiztan gutiago. Erronkarin Uztarrozen baizik ez.

Lapurdin, Miarritze eta Angeluko auzo batzuetan, Milafrangan, Hiriburun, Mugerren, Lehuntzen, Urketan eta Ahurtin (bereziki Beskoitze herriaren mugaren aldera) badira euskaldunak; Bardozen, Lasarrada eta Ibarre auzoetan nahiz karrikan ere badira. Hazparneko komunako Xantus eta Kosta auzoek, Lapurdiko Ahurti eta Nafarroa Behereko Bastida euskararen bidez lotzen dituzte. Ez da euskaldun bertakorik Bidaxunen, Akamarren, Erangon, Burguen edo Erreitin, baina Erangon badira herri euskaldunetarik bizitzera joanak diren jende batzuk. Aintzat har bedi kaskoinen eta euskaldunen arteko muga inguru honetan, laborariak etxez aldatuz bizi izan direla usu.

Zuberoa barrenean, Ozagañe-Arribareitan eta Jestazen, bertako euskaldunak Amikuzetik, Etxarritik edo Arietik horra joanak dira. Muntorin, bakan izanik ere, bertako euskaldunak ditugu. Zuberoako Biarnoko muga guztian, gutiago edo gehiago, euskaraz mintzatzen da eta jendeak bere burua euskaldun sentitzen du; hamasei komunatan euskaldunak ditugu. Oloroeko lurrean, Eskiula, esaterako, ia guztiz euskalduna da. Auzo eta etxeen berri zehatza dakarte Artolak eta Tellabidek. Biarnes hauek Zuberoako herriak hurbil dituzte eta eguneroko harremana dute berekin. Lanaren bukaeran, Salbaterako, Nabarzik, Azpildako, Lexozeko, Baretosko, Eretako, Azpiako eta Lazkungo euskaldunen berri ageri da. Zinez lan ederra Artolak eta Tellabidek duela hogeita bost urte inguru egin zuten euskararen mugaren jarraipen hau.

5.3. 1969. urtean egin inkesta batzuek eta ordurako eginik zeuden monografiatarik atera emaitzek osatzen dute Nicole Moutard-en azterketa; egi-leak euskararen zenbait fonologia-sistema aurkezten ditu, euskalki guztietako fonema bakoitzaren hitz hasierako, bokal arteko eta hitz bukaerako jokatibidea agerturik eta euskararen eremu edo hedadura ahalik eta handiena harrapaturik. Uler daitekeenez, euskalkiez Moutard-ek duen ikuspegiaren oinarrian Bonaparteren banaketa dago.

Euskalki guztien fonologia-ezaugarriak ikusi ondoan, estrukturalismoaren eredia baliaturik, kontsonanteen neutralizazioak, fonemen distribuzioa nahiz konbinazioak, hitzen silaba-egitura, sandhi bilakabideak, bustidura adierazgarria eta geminazio adierazgarria aztertzen ditu. Bata bestearen ondoan dauden ibarrez, ia leku guztietan elkar ulertze maila gora dela dio, baina baita Zuberoako euskara, Bizkaiko hizkera batzuk eta Burundakoa ulertzeko arazoak daudela ere. Bizkaieraren, gipuzkeraren, lapurteraren eta zubereraren barrenean, mintzok aski batasun dutela deritzo eta goi-nafarrera eta behe-nafarrera euskalkiek bitartekotza lana egiten dutela.

Euskal tipoa definitzean, bost bokal nabarmen ageri direla dio; euskalki guztietan erabiltzen ez direnez, bereziak dira ekialdeko *ü* bokala, iparraldeko *h* kontsonantea eta hegoaldeko [x] kontsonante belarea, gaztelaniaren mailegutzat jotzen duena. Sistemaz diharduela, txistukarien neutralizazioak, *tx* eta *tt*-ren arteko nahasketa eta Zuberoan *r* eta *rr* fonemetan gertatzen dena aipagai ditu; fonetikan, fonologian eta lexikoan hiztun ia guztiengan gogor eragiten duen elebitasunaz diharduenean ere, euskal sistema osoa du gogoan. Euskal Herriko hizkuntza-egoera ezaguturik, euskararen etorkizunerako indar gehien Hegoaldeko gazteen artean dakusa ikertzaile atzeritarak.

Baliatu zituen lanabesak honakoak dira: lapurterarako H. Schuchardt-ek Saran bilduak (1922) eta R. Lafon-ek lapurtera literarioaz idatziak; baztainerarako N'Diaye-ren (1970) Arizkungo eta Amaiurko datuak eta Ana Maria Etxaideren Amaiurkoak; mendebaleko behe-nafarrerarako Luzaideko eta Baigorriko bandak eta Haritxelharrek eta Lafonek Baigorriko mintzoaz igorri oharrak; aezkerarako, Bonaparteren eta Lafonen lanabesetz gainera, A. M. Etxaidek 1967an Orbaizetan bildu banda bat; amikuzerarako, Larribarren, Arberatzen eta Gamuen bildu bandak; bardozerarako, Lafonen 1934ko inkesta bateko emaitzak; zaraitzuerarako, Bonaparte, Lafon eta Mitxelenaren lanabesak eta A. M. Etxaidek Itzaltzun 1967an grabatu banda bat; zubererarako, Jean Larrasketenak, herrialdeko ipar-ekialdekoak eta hego-ekialdekoak (1928, 1934, 1939); erronkarierarako, Azkueren lanabesetz gain, Mitxelenak 1952an Izaban eta Uztarrozen egin inkesten emaitzak; hegoaldeko goi-nafarrerarako, Moutard-ek berak A. M. Etxaiderekin Erroibarko Lintzoainen eta Esteribarko Iragin 1969an grabatu banda batzuk; iparraldeko goi-nafarrerarako, 1969an Larraungo Albiasun, Imozko Etxalekun eta Ultzamako Auzan inkestetan bildu emaitzak eta A. M. Etxaidek Bortzerrietako Lesakan eta Beran 1966an egin grabazioak; gipuzkerarako, N. Moutard-ek berak Urnietan eta Andoainen nahiz Ataungo San Gregorio auzoan egin inkestak batetik, eta bestetik, Nafarroako Ergoieneko Unanun A. M. Etxaidek 1966an eta Kandido Izagirrek Altsasun 1967an eginak; bizkaierarako, Moutard-ek berak Aulestian, Zeanuriko Ipiña auzoan, Eibarren (Toribio Etxebarriaren hiztegia atzendu gabe) eta Bergaran 1969an egin inkestak.

5.4. Bonaparteren ikuspegiak zeukan osotasun berbera erdietsirik, beste-la esan, Euskal Herri guztiko mintzoak aztertu ondoan, sailkapen berria eskaini zuen Koldo Zuazok 1998an, *Fontes*-en historian dialektologiako lanik sakonena eta sendoena den artikulua batean. 1869-1980 urteen bitartean euskaran aldakuntzak gertatu direnez eta Euskal Dialektologiari begiratzeko egungo era Bonaparteren garaikoa ez bezalakoa denez, printzearen zortzi dialektoko eskema aldatu beharra zegoela iritzi zion ikertzaile honek. Sei euskalki proposatzen ditu: mendebalekoa, ordura arteko bizkaiera zena, alegia; erdialdekoa, gutxi gorabehera ordura arteko guipuzkera zena, baina Nafarroako ipar-mendebaleko ibar batzuk barne dituela; nafarrera ere, ohi bezala dialektotzat dakusa. Mitxelenak iradoki “roncalés-salacenco” errealitatearen bide beretik (*Sobre el pasado de la lengua vasca*, 1964: 57. or.), bigarren nafarrera bat defendatzen du, ekialdekoa, Erronkarin eta Zaraitzun egiten zena, egun hiztunik gabe gelditu dena: honek ere beste dialekto bat osatzen duela iritzi dio. Lapurtera eta behe-nafarrera, bakoitza euskalki beregaintzat ikusi beharrean, bien artean nafar-lapurtera dialektoa osatzen dutela defendatu du, baina euskalki hau oraino gaizki ezagutzen dugula zintzo aitorturik. Autore gehienek bezala, ohiko zuberera ere euskalkitzat dakusa.

Proposamenaren gibelean egitura sendoa dago: hizkuntza-ezaugarriek geografian barrena ageri duten hedadurari begiraturik, ezagun du badirela eremu batzuk Euskal Herrian beste batzuk baino gordetzaileago izan direnak. Esate baterako, Bizkai aldean, Burundan, Zaraitzun, Erronkarin edo Zuberoan, Euskal Herriko erdiguneko hainbat berrikuntza falta dira. Bizkaian nabarmena da Lea-Artibai eskualdean eta Durangaldean ageri dela Gipuzkoa aldeko eta Euskal Herriko erdiguneko hizkuntza-ezaugarrien eragina. Lapurdin, berriz, eragin hori hego-mendebalean ageri da. Honelatsuko izpiritua darama sakonean iltzaturik Koldo Zuazoren artikulua eta zalantzarik gabe, berarena da azken garaian Euskal Dialektologian idatzi den lanik interesgarriena.

6. EREMU HANDIKO IKERLANAK ETA LAN SUPRADIALEKTALAK

6.1. 1995ean defendatu zuen tesian oinarritzen da Orreaga Ibarren 1996ko artikulua; Ultzama alderdiko eta Basaburuko hizkuntza-ezaugarriak tesian deskribaturik baitzeuden, ondorioez jardun zuen *Fontes* aldizkarian. Tesiaren lau ondoriotarik abiatu zuen bere ikuspegia: a) Bonaparteren ikuspegia bazterturik, Basaburu Nagusiko eta Imozko hizkera alde batera eta Ultzama, Atetz eta Anue ibarretakoa beste batera kokatu zituen. b) Ultzamako euskara Bonapartek hegoaldeko goi-nafarrera izendatzen zuen horretatik hurbil dakusa, Ezkabarte, Odieta eta Esteribarko hizkeretarik hurran. c) Ultzamakotik baino, Larraungo hizkeratik hurbilago dakusa Ibarak Basaburuko euskara, bereziki Arrarats, Beramendi eta Berueteko mintzoak; baita Imozko Goldarazkoa ere. d) Nafarroako euskalkiak ipar / hego eran banatzea baino, egokiago deritzo mendebal / ekialde eran bereizteari, Mitxelenak 1972an iradoki bidetik (*ASJU* 6, 113. or.).

Ultzamako eta Basaburu alderdiko euskara bereizten baldin badira, hizkuntza-molde bakoitzari dagozkion gizataldeek ere, ibar batzuetako eta besteetako hiztun taldeek, jokabide historiko berezitua eduki dutelako dela dio, bateratua izan ez delako eta horretarako datu batzuk ematen ditu. Bonapar-

terenaz bestelakoa den bere iritzia argudiatzean, arrazoi du nafarrera ipar / hego irizpidearen edo ezaugarrien arabera bereiztea zail dela esatean, baina aitortu behar da Bonapartek banaketa hau ez zuela *-ak / -ek* eta *-gan / baitan* ezaugarrietan soilik oinarritu, tasun gehiago erabili eta aipatu zituen. Fun-tsean, Ibarrek bi taldetan banatzen du nafarrera: mendebaleko sailean, Arakil, Basaburu Nagusia, Imotz, Basaburu Txikia eta Araitz dakuski eta ekialdekoan, Bonaparteren hego-nafarrera garaiaz gainera, Baztan, Ultzama, Anue, Atetz eta Bortzerriak, hauen baitara Sunbilla eta Malerreka ekarririk.

Orreaga Ibarren lanaren balioa eta garrantzia berehalakoan ikusi dira: Koldo Zuazok alde batetik nafarrera eta bestetik erdialdeko euskalkia bereizteko 1998an erabili zituen argudioek, lotura dute Ibarren lanaren ildo nagusiekin eta egun guztiz onarturik daude.

6.2. Bonaparteren “hegoaldeko goi-nafarrera” dialekto edo konstruktoak egiantzekotasunik falta ez duela, baina zehaztasunaren aldetik sakontasun eta argitasun gehiagoren beharra daukala pentsaturik, ehun eta berrogeita hamar ezaugarri baino gehiago aztertu ditu Iñaki Caminok Aezkoatik hasi eta Gesalatz ibarrerraino doan eremu zabalean, baina Zaraitzuko eta Sakanako mintzoen erakutsia atzendu gabe; 1999-2001 urteen bitarteko *ASJU* aldizkarian Goñerriko mintzoa aztertu ondoko ikergaia da *Fontes*-en 2003an atera dena. Arakil, Gulibar, Txulapain, Odieta, Ezkabarte, Olaibar eta ipar Esteribarko mintzoak hego-nafarreratik kanpo utzi ditu Caminok, eta Bonapartek mendebaleko behe-nafarreraren kokatzen zuen Aezkoako *uskara*, berriz, hego-nafarreraren barrenean, 1995eko bere tesian iradoki bezala. Erabakiok irizpide teoriko-metodologiko jakin batzuk erabilirik hartu ditu; ikertzaile anitzek artean euskalki beregainatzen zeukaten hego-nafarrera, egun nafarreratzat jotzen den dialektoaren azpieuskalkia dela defendatzen du.

6.3. Nafarroa Beherea dialektologiaren aldetik gaizki ezagutzen dugun herrialdea da. Jakina da Bonapartek bi euskalki behe-nafar zekuskiela eta Azkuek bakarra; Henri Guiter-en 1973ko ikerketak ere, behe-nafarreraren eta lapurteraren arteko mugarik ez dela sumatzen iradoki zuen. Azken garaiko azterketetan, Koldo Zuazok behe-nafarrera eta lapurtera ez direla euskalki beregainak eta nafar-lapurtera izenekoak dialekto bat osatzen duela defendatu du (1998, 2003). Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokaguneaz eta Larresoroko mintzoaz diharduen Irantzu Epelderen 2003ko tesiari darion ikuspegia ere iduria da. 2004an argitaratu artikulua batean Iñaki Caminok ere zailtasuna ikusi du Nafarroa Behereko mintzoaren eta hizkuntzalaritzan ohiz “lapurtera” deritzan euskalkiaren artean dialekto desberdintasuna dagoela defendatzeko; dioenez, tasun sailkatzailetzat ezaugarri eskusiboak ala ezaugarrien konbinazio eskusiboak erabiltzeko erabakia, jokabide alde aurretikoa da eta horretan datza kokagunearen eta euskalki banaketaren gakoak: eremu teorikoan datza auzia datuen errealitatean baino gehiago.

Caminoren ikerlanak frogatzen duenez, Nafarroa Behereko gunerik batura eta konbergenteena, Garazik, Oztibarrek eta Arberoa-Iholdi alderdiak osatzen dute. Eremu horretako berrikuntzak falta izatea da Baigorriren ezaugarri nagusia, Ipar Euskal Herriko mendebalera edota Hego Euskal Herrira begira ageri da ibar hau ezaugarri berritzaile hauek gabe. Amikuzeko mintzoan, berriz, Nafarroa Behereko berrikuntza ugari horiez landa, Zuberoa alderdiko zenbait ezaugarri ere nabarmen ageri da. Nafarroa Behereko mendebalean, Aiherran edo Izturitzen, esaterako, Hazparnealdeko euskararen ere age-

ri diren ezaugarriak erabiltzen dira, Makean-eta entzuten direnak. Lapurdiko ipar-ekialdean, Aturrialdeari dagokionez, Beskoitzek Lapurdiko ezaugarrieta-ra joera duela eta Bardozek Amikuzekoetara duela erakutsi da lan honetan. Artean aztertu gabe zegoen ikergaiari argitasun zerbait ekarri zaio.

6.4. Hogeita hamalau ezaugarri aztertu ondoko ikuspegia dakar Koldo Zuazok Arabako euskararen kokagunearen gaia aztertzeko 1999an; lan hau 1989an idatzi “Arabako euskara” artikulua osatzera dator eta 1998ko izen bereko beste artikulua batean ageri den ikusmoldea laburtzen du. Historikoki Bizkaiko euskararen edota Gipuzkoakoaren berdintsutzat agertu izan dute zenbait idazlek Arabako mintzoa; jokabide edo ikuspegi horren gibelean arrazoi zenbait egon behar duela uste du Zuazok. Arabakoa euskalki berezia zelako Mitxelenaren usteari ezin eutsi dakiokela deritzo eta Araba gehiena mendebaleko euskalkiaren eremukoa zela dio: hamabost ezaugarri, hainbat aldaera fonetiko eta lexikoan diren kidesan oinarritzat hartzen ditu Zuazok lotura hori bermatzeko.

Arabako ekialdeko lekukoak dira mendebaleko euskalkitik gehien aldentzen direnak: mendebaleko euskalkiaren ezaugarri batzuk ez dira ageri Arabako ekialdean eta badira bertan mendebalean ezezagunak diren hamai-ka ezaugarri. Arabako ekialdeko alderdi hau, mendebaleko euskalkiaren, erdialdekoaren eta nafarreraren arteko eremutzat jotzen du Zuazok. Bestalde, dioenez, Leintzek, Oñatik eta Goierrik mendeetan zehar Arabarekin izan duten hartu-emanak zinez hertsia izan da eta ezagun du hori egungo euskarak ere. Arabako hizkeraren izaera berritzailearen zortzi frogak ere badakartza artikuluan.

Toponimian oinarriturik gutxi gorabeherako hiru eremu bereizi zituen Koldo Zuazok 1998an Araban: sartaldea, Zigoitia eta Legutiano bertan direla; erdialdea, Arratzu-Ubarrundia, Barrundia, Burgelu, Dulantzi, Trebiñu eta Gasteiz barne dituela eta azkenik sartaldekoa, Donemiliaga, Agurain, Iru-raitz-Gauna, Maeztu eta Bernedo barne. Dioenez, Araba ekialdeko eremuko euskara honek harremana zeukan egungo Burundako eta garai bateko Ameskoako eta Lanako euskararekin; Patxi Salaberri Zaratiegik 1998an idatzi artikulua batean ere ikuspegi iduria ageri da.

7. ESKUALDEEN AZTERKETAK

7.1. Bortzerrietako euskararen azterketa egin du Edu Zelaietak 2004an; ikerketaren helburua herri batetik bestera zein berdintasun eta zein desberdintasun dagoen argitzea da, azentueraz eta lexikoaz gainera, oinarria laurogeita lau ezaugarritan harturik. Bortzerrietako euskarak ez du bere-berezko ezaugarririk: ondoko mintzoekin hertsia loturik ageri da, bai, baina halaz guztiz ere, batasuna du mintzo honek, barne isoglosa gutik arrailtzen dute eremua. Batasun hori Bidasoa ibaiarekiko kokagunearen nahiz Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasunaren arabera eteten da: alde batera Bera eta Etxalar gelditzen dira eta Lesaka, Igantzi eta Arantza bestera. Ipar Euskal Herriko mintzora gehien hurbiltzen dena Etxalar da. Hizkera bereziaren kontzientzia, berriz, Arantzan ageri da, ezaugarri zenbaitetan nabarmena dena: hainbat bilakabide fonologikoren indarrean eta bilakabideon kateatzean bereziki.

Bortzerrietako euskara ondoko mintzo nafarretarik urruntzen denean, hizkuntzaren aldetik Lapurdia edota Gipuzkoara begira ere badagoelako

izan ohi da, nahiz baden ezaugarri sorta bat Bortzerriak eta Gipuzkoa bereiz uzten dituen. Badira gero beste ezaugarri batzuk Bidasoaldekoak edo direnak, Irunen eta Hondarribian ere ageri direnak; beste batzuk, berriz, Bortzerrietan, Leitizan, Basaburu Tikian eta Malerrekan erabiltzen dira. Taldekatzeari dagokionez, Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizarana bateratsu dakuski Zelaietak, Bortzerrietako euskara Gipuzkoakoari eta Lapurdikoari begira beste hiru horiek baino maila handiagoan dagoela atzendu gabe. Sunbilla, Malerreka eta Bertizarana baino urrunago dakuski Bortzerriekiko Goizuetako eta Baztango mintzoa eta urrunxeago oraino, Urdazubi-Zugarra-murdi, Sara eta muga ondoko hizkera lapurtarrak.

7.2. 2003an bururatu eta aurkeztu zuen Irantzu Epeldek Larresoroko euskararen gaineko bere doktoretza tesia eta lan horretan defendatzen dituen ondorioak dira *Fontes*-ko 2004 urteko artikuluan dakartzanak. Bertan, Arrangoitze-Senpere-Ainhoatik ekialdera hasi eta Nafarroa Behereko muga bitarteko eremua du aztergai, Lapurdiko hego-ekialdea, hain zuzen ere; funtsean, Uztaritze aldeko eta Hazparneko eskualdeko euskara. Bonaparteren terminologian, Lapurdiko mendebaleko behe-nafarrera litzatekeena. Gogoan izatekoa da Bonaparteren ustean behe-nafarreraren baitan Uztaritze aldekoa zela lapurterarekin antz gehien zuen mintzoa.

Epelderen metodologiaren oinarrian Larresoroko eta Hazparneko mintzoen arteko alderatzea dago, fonologia, morfosintaxia eta lexikoa baliatuz. Desberdintasunak honako ezaugarrietan sumatu ditu: “ue” hiatusetik datorren “ui”, “ie” eta “ua” hiatusetan, *o* > *u* aldaketan, *ai* diptongoaren emaitzan, Nor Nori saileko *au* / *ai* diptongoetan, hasperenaren agerraldien maiztasunean, *-er* datibo pluralekoan, genitiboan, erakusle pluraletan, pertsona izenordain indartuetan, *ukan*-en erabileran, xuketan, Nor Nori sailaren orainaldiko *z-* / *d-* morfemetan, **eradun* eta **-i-* erroetan, *zki* / *zk* pluralgileetan eta *-a* galdera morfeman.

Epeldek dioenez, Lapurdiko hego-ekialdeko euskarak badu aski nortasun hizkera multzo bat osatzen duela adierazteko, nahiz Uztaritze aldeko eta Hazparne aldeko euskara ez diren berdinak; hiztunak ere ohartzen bide dira honetat. Zenbait ezaugarritan Itsasuk Hazparne aldearekin bat egiten du eta Zuraiden Lapurdiko hego-mendebaleko hizkeraren eragina sumatzen da. Oro har, Uztaritze aldeko eta Hazparne eskualdeko mintzoak berdinak ez badira ere, batetik besterako jauzia era mailakatuan gertatzen dela esan liteke.

7.3. Sakana erdialdeko mintzoaz dihardu *Erizkizundi Irukoitza*-ren emaitzak iruzkintzen dituen Jose Luis Erdoziaren 2000. urteko artikulua. Bertan, Etxarriko, Arbizuko eta Uharteko emaitzak aztertzen dira, *Erizkizundi*-a egin zen garaikoak eta egungo erabilera; Erdoziaren arabera ordukoak ez dira fidagarriak. Erdoziak berak, Sakana ibarreko hizkera guztien iziera aintzat hartuz, hauek kokatzeko eginahala egin du 2005ean “Sakanerak” izeneko artikuluan. Hasierako lanetan eta bere doktoretza tesian, Etxarri-Aranaztik Uharte-Arakilerainoko eremuan funtsean hizkera bat dagoela defendatu du Erdoziak. Burundako euskara eta Sakana erdialdekoa lotzen dituen mintzoa Bakaikukoa dela dio, bestalde. Hizkerok Irañetako eta Arakilgo mintzoarekin alderatu ondoan, erabaki du hizkuntzaren aldetik, Sakana erdialdea, Irañeta eta Arakil batera doazela: Irañetako eta Arakilgoa erabat antzekoak direlako batetik, eta bestetik, Irañetako mintzoak Sakana erdialdekoarekin bete-betean bat egiten duelako. Aitzitik, urte bereko artikulua ba-

tean, Arakilgo euskara Sakana erdialdekoetik bereizteko tradizioa egokia dela eta hizkuntzaren aldetik “Sakanerak” izendapena alferrikakoa dela adierazi du Iñaki Caminok.

Erdoziak Sakanan bi hizkera eremu bereiz daitezkeela adierazi du: alde batetik Burundakoa, eta bestetik, Sakana erdialdekoa eta Arakilgoa. Caminoren iritzian Irañetako eta Arakilgo mintzoa ez dago Sakana erdialdekoa dagoen grabitazio-indar linguistiko beren pean eta Sakanan hiru eremu dakuski: bereizketa nabarmenena Sakana erdialdekoetik Burundara dagoela onetsirik ere, Arakil aldeko euskararen eta Sakana erdialdekoaren artean garrantzi handiko isoglosa bereizle ugari dakusa. Sakana erdialdean ageri ez diren ezaugarriak ugari dira Arakilen eta Irañetan: esaterako, hainbat berrikuntza, Nafarroa Garaian hedadura handia dutenak, Gulibar, Atetz, Txulapain, Ultzama, Ezkabarte, Olaibar eta Anue ibarretan erabiltzen direnak. Arakil aldean bada beste ezaugarri batzuk, Nafarroako ekialdean eta eskuinerago ere hedadura dutenak, baina Sakana erdialdean ageri ez direnak.

Ez du ukatzen Caminok Sakana erdialdeko eta Irañetako euskararen artean lotura ere badela, baina lotura horren izaera aztertzeari bezain garrantziko deritzo etenak ikertzeari ere. Artikuluaren bukaeran, Arakilgo euskaraz dugun ezagutzan sumatzen diren hutsune larriez dihardu eta ez da aipamenik falta bertako datuek inoiz ageri duten fidagarritasunik ezaz.

7.4. Estibalitz Montoyak Zugarramurdi eta Urdazubiko euskara aztertu du bere doktoretza tesian; gai hori bera darabil 2004ko *Fontes*-ko artikulua batean; J. M. Sánchez Carrión-ek 1972an bi herri hauetako mintzoa mailegu frantsesak dituen baztaneratzat hartu zuela eta, Montoyak diosku Bonaparteren eta Zuazoren ikuspegiari atxikitzen zaiola eta nafar-lapurteratzat jotzen du, hego mendebaleko hizkerekin batean, bereziki Sara eta Ainhoarekin, baina baita hein batean Senpere eta Ahetzerekin ere. Adina aintzat harturik, sei ezaugarri dakartza egile honek zaharren eta gazteen artean desberdin erabiltzen direnak: hasperena, hurbiltze adlatiboa, *-tik lekura* ‘-tik kanpora’ egitura, *-no* denborazko morfema, “laguntzailea + partizipioa” egitura eta lexikoa. Hizkeraren erabileran Zugarramurdi eta Urdazubin bizibideak duen eragina zein den erakutsi du Montoyak, bestalde.

Bi herriotako euskararen norabidea zein den argi eta garbi diosku: gazteek, garai batean izan ohi zen baino hartu-eman gutiago dute Ipar Euskal Herriarekin eta aldi berean, gaztelaniak gogor eragiten dio bi herriotako euskarari, bereziki turismoarekin lotura zenbait duen jendearen baitan. Gazteek, gainera, Euskal Herriko erdialdeko hizkeren eretara hurbiltzeko joera dute egun; joera honi Montoyak ez deritzo guztiz berria; euskara batura jotze hori, aldiz, berria da Urdazubi- Zugarramurdi eta nabarmena da egungo gazteengan. Bi herriotako folk mintzoaren etorkizuna kolokan dakusa Estibalitz Montoyak.

8. HERRI BATEKO EUSKARAREN AZTERKETAK

8.1. Herri bateko euskaraz egin diren lehen lanetan (1982-87) datu bildumak nagusi ageri dira: Iñaki Gaminderen haste-hasteko saioak ditugu, Butroeko, Elantxobeko eta Bilboko Arbolantxa eta Buxa auzoetako mintzoa aurkezten dutenak. Lanotan, fonologia, morfologia, sintaxi eta lexikoko lanabesak biltzeaz gainera, ondoko bere ibilbidearen ardatza bilakatuko den

azentua zehazten du ikertzaile bilbotarrak zenbait kasutan. Geroagoko lan batean (1999), galzorian den euskara bildurik, Billerle ondoko Urrunagako, Nafarrateko eta Elosuko emaitza labur batzuk dakartza: fonetika akustikoko irudiak baliaturik, bi soinuren eta azentuera zenbaiten aurkezpenak eskaintzen ditu bertan; bilduma morfologiaren eta lexikoaren atal zenbaitek osatzen dute.

8.2. Sakanako euskara herri-bildumetan ausarki ageri da: Gregoria Solisek erabat euskalduna eta beste mintzoekiko interferentziarik gabeko herri-tzat dakarren Lizarragako emaitzak argitaratu zituen 1993an: bertan dioenez, Ergoieneko hiru herrietan oso ezberdin mintzatzen omen da. Fonetika-fonologiari dagozkion Lizarragako aldaerak aurkezten ditu eta bukaeran etnotes-tu zenbait dakartza.

8.3. Sakanako euskaran aditua den Jose Luis Erdoziak hiru herritako euskararen aurkezpenak egin ditu aldizkariaren hondarreko aldian (2002-2004). Lehen Burunda ibarreko Bakaikukoa da, hirurogei urtetik goitiko herritarrek mintzatzen dutena. Emaitzak aztertutik, Burundako mintzoaren ataltzat dauka Bakaikukoa Erdoziak, baina berezitasun batekin: Etxarri ondoko herri honetan Sakana erdialdeko era batzuk ageri dira eta ondoko hizkera horretarako trantsizioa sumatzen da; etnotestu llabur bat ere badakar egileak. Bigarren lana Patxi Floresekin batean egin du Erdoziak eta Lizarragabengoko hizkera du bertan aztergai. Egileek diotenez, Arbizuko eta Etxarriko herritarrekiko harremana nabarmena da Lizarragabengoan; harremanez bezala, jatorriz ere Lizarragabengoko hiztunek bi herriekin lotura dute, norik nola; bi herri hauetako euskara nahaska ibiltzen omen da Lizarragabengoko euskaldunen artean, egun Arbizukora gehiago lerratzen bada ere. Etxarrira eta Arbizura edota bietara begira dauden Lizarragabengoko ezaugarriak zehazten dira lanean zehar.

8.4. Berebat, Sakana erdialdeko ezaugarriak aintzat harturik aztertzen du Irañetako euskara Erdoziak; mintzo horretan bete-betean sarturik dakusa Irañetakoa eta dioenez, Arakilgoaren arras berdina da. Gutxi dira Irañetako bereko euskararen mintzo diren lagunak, adinekoak guztiak, eta Erdoziak mintzoaren lagin bat dakar. Lanaren egitura ohikoa da: herriko euskararen ezaugarrien hautua egin eta fonologia, morfologia, sintaxi eta lexikoaren alderdi zenbait aurkezten ditu. Balizko aldaketen berri emateko XIX. mendeko apez irintar baten idazkiko erak eta XX. mende hasierako *Erizkizundi Irukoitz*-ekoak dakartza interpretazioen oinarri. Irañetako euskaraz eta oro har Arakilgoaz Erdoziak egin duen interpretazioa beste era batera ere egin litekeela adierazi du Iñaki Caminok 2005ean. Onesten du Irañetako eta Arakilgo euskara iduriak direla, baina ez du uste, Erdoziak dioen bezala, Irañetako mintzoak Sakana erdialdeko euskararekin bete-betean bat egiten duenik.

8.5. Ekialdeko euskaraz denaz bezainbatean, Ph. Etxegorriren deskribapena aipa daiteke, aztergai Jeruntzeko *iiskara* duena (2003). Biarnoko Jeruntzeko bizilagunen jatorria ondoko Eskiulan dagoela diosku egileak. Deskribapena ez da bizilagun ugari egin inkestaren ondorioa: datu gehienak egilearen aitaren osaba bati hartuak dira. Emaitzetan, fonologia, morfologia, sintaxia, lexikoa eta ipuin bat aurkezten dizkigu: aditz erez diharduela, Zuberoako beste leku batzuetan zaharkiturik dauden *ailitz* / *ailedi* edo *ailü* / *ailiza* egiturak bildu dituela diosku, baina jatorria elizako liburuetan ez ote duten galdegiten dio egileak bere buruari, ziurtasunik ez badu ere. Zuberoa ad-

ministratibotik kanpokoa eta horren ekialdekoa den euskara molde honen lekukotasunak, inolaz ere balio erantsia du.

8.6. Ainhoa eta Idoia Frailek 1996an ondu *Oiartzungo hizkera* liburuak bertako egungo euskara nolakoa den erakutsi zuen. Koldo Zuazok, berriz, oiartzuerak gainerateko hizkeren artean izan duen eta egun duen kokaguneaz oharrak egin zituen 1997an. Gaian sakontzeko, hizkuntzaren aldetik Errenteria-Irun alderdia, Arano, Goizueta eta Bortzerriak ere aztertu zituen. Egilea ohartu denez, Errenteria-Irun bitarteko hizkeretan Ipar Euskal Herriko eragina ahula da eta azken mendeetan Euskal Herriko erdiguneko hizkuntzakeragina eta bereziki Gipuzkoakoa bildu du Oiartzun alderdi horrek; Nafarroarekin eta Lapurdirekin lotura egiten zuten ezaugarriek, berriz, gibelera jo dute. Hondarribiaren eta Irunen kasuan ez bezala, Oiartzun Donostiaren inguruan ibili izanak ere azalduko luke joera hau: erdialdeko euskalkiari begira-edo sumatzen du Oiartzungo euskara Zuazok.

Artikulu berean hizkuntza-ezaugarri batzuen hedaduraz eta antzinatasunaz ere jardun zuen egile honek, baita hizkera jakin bat sailkatzerakoan kontuan izan beharreko gertakariez ere. Euskalkien sailkapena ere ukitu zuen: Bortzerrietako eta Goizuetako euskara nafarreraren barrenean kokatu zituen; Errenteria-Irun bitarteko mintzoak eta Aranokoa ez erabat. Herri bateko hizkera aztertzeko beraren inguru guztia eta Euskal Herrian hedadura zabala duten ezaugarriak ongi ezagutzea zein garrantzizkoa den erakutsi zuen eibartarrak artikulu honetan; izan ere, 1998ko “Euskalkiak, gaur” artikulu ezagunaren aitzindaria baita Oiartzungo euskararen gaineko saio hau.

9. MINTZO BATEN ATAL ZENBAITEN AZTERKETAK

9.1. Iñaki Gaminde da aldizkari honen orrialdeak gehien aberastu dituen ikertzaileetarik. Azken garaian azentu eta entonazio kontuetan badihardu ere, *Uztaro* aldizkarian egin duen legez, *Fontes*-en ere Euskal Herriko franko alderditako euskararen atalak bildu, aztertu eta argitaratu ditu. Lerro-lerro doaz egin dituenak: Orozkoko aditza (1983), Nor-en ahaleko oraina eta “joan”, “ibili” eta “egon”-en adizki alokutiboak Nafarroan (1985), Esteribarko aditzak (1986), Bizkaiko adizki trinkoen oraineko alokutiboa (1988), bizkaieraren esaldi denborazkoak (1992), Nafarroako nominalizazioak (1993), Munitibar eta inguruko azentu ereduak (1994), Nafarroako menperagailuak (1994), Larraungo Alli herriko azentu ereduak (1995), gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa (1995), Bizkaiko ahozko euskararen esaldi ereduak (1995), Lesakako azentu eta entonazioa (1996), azentu bariazioa Gipuzkoan (1996), Bakioko azentua (1999), Eibarko euskararen entonazioa (2000), Meñakako berba konposatuaren azentua (2001), Jatabeko morfologiaren azentua (2001), Leioako azentua (2002), Zeanuriko entonazio ereduak (2003), tonuak eta etenak Gatikako entonazioan (2004).

Gaminderen ikerlanak egungo Euskal Dialektologiako azterketa eta doktoretza tesi orotako bibliografian ageri dira, berebizikoa baita egin duen lana. Euskal Herriko bazter gehienak ibili ditu eta emaitza oparoa bildu, hala fonologian, morfologiako paradigmatan, alderdi lexikoan nola azentuaren eta entonazioaren arloan. Inkestagintzan lanak izaten dira behatzailearen paradoxa gainditzen; emaitzetan lekukoak zinez herrian esaten ez den zerbait inoiz erantzun gisa ematea eta ikertzaileak argitaratzea, ez da harrizkoa iza-

ten. Hemendik kanpo ere ezaguna den gertakari honen aurkako formularik ez dago: eremu ugaritako datu konparagarriek sortzen duten onuraren aitzinean, huskeria honek ez du inolako garrantzirik: etorkizuneko monografiak, kontrol talde batek edo nolana hiko oharrek aise sala dezakete inkestaren erantzunetara sar litekeen txitxirio beltz hori.

9.2. Txomin Peillenek Zuberoako euskararen hainbat ezaugarriren berri eman du *Fontes* aldizkariko orrietan. Goi Zuberoan estilistikaren alderditik zenbait bilakabide fonologikoren bidez hizkuntzan ironia lor daitekeela gogorarazi zigun 1979an: *b / m* fonemak trukatzeari, kontsonanteen palatalizazio adierazgarria erabiltzea eta bokalen arteko zenbait ordezkatzeari egitea ezagunak dira eskualdean konnotazio ironikoa erdiesteko. Urte bereko beste saio batean, Zuberoako ahozko mintzoan eta tragedia antzetzuetan erabiltzen diren galdera perpausetako hainbat osagaien gainean jardun zuen, eta osagaiok Euskal Herriko beste bazter batzuetako erabileran berrager daitezkeela iradoki zuen: *othian* & *oithian / ete* adibidea aipa daiteke, esaterako. Osagaiok perpausaren zein ataletan ageri diren eta zein doinu duten ere garrantzizkoa da konnotazio bat ala bestea duten aldetik.

1980an idatzi artikulua batean dioenez, gaztelania zaharrak, biarnesak eta euskarak garai batean harreman hertsia izan zuten eta Gonzalo de Berceo idazleak erabili hitz batzuk Zuberoako euskararen oraino erabiltzea, horren frogara da. Laurehun urtez Zuberoako hizkuntza ofiziala nafar erromantzea izan zela ere gogorarazten digu Peillenek. Gaztelaniak Zuberoako euskararen eta bereziki Basabürükoan izan duen eraginaz beste artikulua interesgarri bat idatzi zuen 1986an. Biarnesa eta frantsesa bezala, gaztelania ere gauza behar zen zuberotar anitzentzat ogia etxetik kanpo irabazteko. Mailegu lexikoen zerrenda koxkorra ageri da artikuluan eta hitzok usu dituzten konnotazioak ere argitzen dizkigu. Zenbait aldiz ez dago garbi hitz bat kaskoinetik ala gaztelaniatik sartua den. Pastoraletan gaztelania doinu tragikoa ala erlijiozkoa emateko erabili izan dela ere adierazten digu egileak.

1983 urteko beste artikulua batean Parisko Biblioteka Nazionalan dauden Zuberoako bi hiztegiaren berri dakar: testua XVIII. mendekoa da berez, XIXko kopia bat baldin badu ere. Joan Felipe Belako zaldunarena da, 570 sarrerak osatzen dute eta zortzi hizkuntzatan eta hiru euskal dialektotan emana da. Peillenek hitz ugariz oharrek dakartza eta bestalde, grafia arazoak aipatzen ditu, kaskoinaren grafia sistemaren erabilerari dagozkionak bereziki. Hiztegiak ezagutzen zuten Larramendiren lana eta baliteke bere hiztegia moldatzeko Jakes Belakoaren hiztegi galdua ezagutu eta baliatu izana ere. Nafarroa Behereko hitzen eragina ere sumatu du Peillenek hiztegi honetan.

1992ko beste artikulua batean antzinako Zuberoako euskara gainerateko euskalkiei orain baino lotuago zegoela erakusten du: lekuizenetan oinarritzko hiztegi zahar bat dago euskalki guztien altxor izan dena eta egun euskalki bakoitzak besteak gabe uler ez dezakeena. Adibide gisa, Zuberoako, Nafarroako eta Arabako izen ugari dakar. Beste hemeretzi izenen adibidea ere ageri da: egun Zuberoan erabiltzen ez diren izen batzuk, beste herrialdeetan ezagunak direnak, lehenagoko Zuberoan erabiltzen ziren. Berebat, garai bateko izen txipi batzuen eta hitz elkartuetan fosilizaturik ageri diren beste lexema batzuen berri dakar artikulua interesgarri honetan; atzizki batzuen azterketa da lanaren azken atala.

9.3. Hikako aditz jokoak bildu zituzten Markinan eta Mallabian Rodrigo Garzia Azurmendik eta Kontxi Arregi Urizarrek (1981); lanean zehar erabileraz eta fonologiaz ohar batzuk ageri dira. 2002an Inaxio Lopez de Aranak Aramaioko Oleta auzoko eta Eibarko hiketaren erabileraren baldintzez inkesta bana egin zuen eta berarekin batera baita paradigmatik bildu ere. Xabier Burguetek, berriz, Otxandioko, Ubideko eta Aramaioko Oleta auzoko hiketaren berezitasunen berri dakar (1994): agintezkoetan, subjuntibokoetan eta iraganeko adizkietan, hiketa zuzenean nahiz alokutiboan ez da ohiko *-n*-rik ageri. Bestalde, femeninoaren adierazle den *-n* morfemarik adizkian ez agertzea ere aski arrunta da: Oletan zenbait adizkitan gertatzen da hau, baina Otxandion ere badira honelako adibideak; Ubidean, ordea, ohiko eran erabiltzen da femeninoaren marka. Artikuluaren bukaeran zehargalderetan *-n* galteza zein baldintzatan eta zein eskualdetan gertatzen den adierazten du Burguetek.

9.4. Eneko Barrutiaren lanaren ikuspegia desberdina da: Bizkai aldean hiketa guti erabiltzen dela eta, ez galtzeko, Bizkai guztirako balioko lukeen eredu bat proposatu zuen 1987an; bizkaiera batuko paradigma sorta eraiki zuen. Arratiako erak frankotan Bizkaiko gaineratekoetarik bereizten direnez, hauek bizkaiera batuan lekurik ez dutela erabaki zuen. Adizki laguntzaileen eta trinkoen aldaera sorta galanta dakar Barrutiak.

9.5. José María Sánchez Carrión “Txepetx”-ek Urritzola-Galaingo euskara Ultzamakoarekin baino, lotuago dakusa Odietakoarekin (1972); ohiko “dut” forma beharrean, Urritzolan 1970ean *dout* entzun uste izan zuela diosku; dioenez, aldaera hau Odietatik Ultzamara sartua dateke. Berebat, Nafarroan egin zituen ibileretan oinarriturik, *esan* eta *erran* aldaeren erabileraren geografia-eremua zein den erakutsi zuen 1974an.

9.6. Josu Oregik Ordiziako euskaran idatzia den 1713ko Otxoa-Arinen kristau ikasbideko adizkiak egun Gipuzkoan erabiltzen direnekin alderatu zituen 1972an aldaerei buruzko oharra eginez.

9.7. Jose Basterretxeak Gernikaldeko euskal entonazioa aztertu zuen 1974-75etan; euskararen eta hizkuntza indoeuroparren artean entonazioan alde nabarmena dagoela-eta, euskara ikasten duten ikasleek aintzat hartu beharreko ezaugarri bereizgarriez dihardu; eskualdetik eskualdera doinu sisteman euskaraz aldaketak daudela aipatzen du: doinuaren arabera singularra eta plurala bereizten dela, Gernikaldean bezala Donostian eta Tolosan bereizketa fonologiko hau badela, baina Erreterian eta Baztanen ez dela egiten... honelako berriak dakartza Basterretxeak sarreran. Lanean zehar Gernikaldeko doinu sistemaren adibide ugari eskaintzen du, izenak, aditzak eta perpaus motak azterturik. Euskara eta gainerateko hizkuntzen artean bereizketa egiteko moldeaz eta Erreterriako azentuaz Basterretxeak idatziak urte bete geroago kritikatu zituen Mitxelena *Fontes*-en berean.

9.8. Gipuzkoa bezalako eskualde berritzaileetan mugagabeko morfemak eta mugatu / mugagabe bereizketa bera ere euskaraz galtzen ari direla-eta, Txillardegik ertzeko hizkera bateko idazle bat hautatu zuen 1977an mugagabeaz egiten duen erabilera aztertzeko: XIX. mendeko Barkoxeko Etxahunen olerkiak hautatu zituen. Aditzekin, partitiboarekin edo baiezko perpausekin mugagabea nola darabilen aztertu zuen; *goiz*, *barne*, *etxe* edo *errege* bezalako hitz berezietan gertatzen dena, *bat*-en erabilera eta kasu batzuetako aditzaren komuntadurarik eza ere aipagai ditu Antiguako hizkuntzalariak.

9.9. Azkuek bere hiztegian Joakin Lizarragaren lana nola erabili zuen aztertu zuen aurten pausatu berri zaigun Frantzisko Ondarrak 1980an. Azkuek Lizarragaren 384 aipu dakartza, hiru lanetakoak; bereziki *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac* hustu zuen, baina Azkuek erabili zuen *Urteco*-a, Iturriagak giputz eren arabera argitaratu zuena da, Lizarragaren era asko aldatuak dauzkana; ondoren, aldaketa hauek beren bidea egin dute beste hiztegi batzuetan, are Mitxelenaren beraren *FHV* doktoretza lanean ere. Aldaketa hauen guztien berri dakar banan-banan Ondarrak.

9.10. Mitxelenaren 1985eko lan batean oinarriturik, Balbino García de Albizuk Ameskoako toponimiako *-dana* eta *-dirana* atzizki lokatiboak aztertu zituen 1994an. Atzizki hauek hartzen dituzten izenen berri dakar eta lantzeko alorrekin eta mugekin ageri duten lotura sakonaren berri ematen digu: arbola baten edo zuhaiska baten kokagunea adierazten dute. Arbola mota bat ugari den lekuan, ez da zuhaitz horren izena daraman toponimorik ageri, bakan dagoen lekuan baizik, bereizteko balio baitu atzizki honek: ez da ugari-tasuna adierazteko atzizkia, horretarako *-dui*, *-eta* edo *-aga* daude. Duen iraunkortasuna eta sendotasuna dela-eta, zuhaitzak gizartean duen estimua eta begirunea nabarmen ageri da toponimoetan. Toponimiako atzizki hauek, zubiei, bidegurutzeei, lezei, erleei edo idiei ere erantsi zaizkie, kokatzeko duten gaitasunagatik. Agerpenik zaharrena 1607 urtekoa dute.

9.11. Eugenio Arraizak, Caro Baroja, Mitxelena eta Luis Mari Mujikaren iritziaren aurka, *-ain* bukaera duten Euskal Herriko herri izenetan, sakonean dagoena genitiboko euskal *-ain* atzizkia dela defendatu zuen 1986an: Nafarroan Iruñerriaren inguruan eta Nafarroa Beherean erabilia den *-ain* “-aren” hain zuzen, dioenez Euskal Herri guztiko “hain” edo “bezain” hitzetan dagoena bera (zenbaki berean Jose Maria Jimeno Juriok Nafarroan *-ain* duten toponimoen zerrenda dakar). Patxi Salaberri Zaratiegik ezinezkoa dakusa hipotesi hori (2000), *-aren* > *-ain* bilakabidea berria delako eta *-ain* duten toponimoak Erdi Arotik datozelako; bestalde, atzizki hau antroponimoei txertatu ohi zaie eta gauza jakina da pertsona izenak euskaraz mugatzailerik ga-beak direla.

9.12. Alfonso Irigoienek ahal izatea eta ezin izatea Euskal Herriko men-debalean nola adierazi izan diren erakutsi zuen 1596ko *Refranes y Sentencias*, Olaetxearen 1763ko kristau ikasbidea eta J. A. Moguelen eta Prai Bartolomeren lanak baliaturik (1996): *egin*, *edun*, *eutsi*, *izan*, *edin* eta *ekin* oinarrietarik eratorri laguntzaileen eta *lei*, *leiz*, *zinaiz* erakoen jokaera erakutsi zituen; Euskal Herriko ekialdeko erabilera erakusteko, Etxepareren, Leizarragaren eta Oihenarten adibideak baliatu zituen.

9.13. Lan gogoangarri batean Jose Ignacio Hualdek euskal **j* zaharraren jokabidearen berri zabala eman zuen 1987an franko euskalkitako adibideak bildurik, nagusiki Gipuzkoako, Bizkaiko ekialdeko eta Erronkariko adibideen bitartez. Hitzaren hasieran eta bokal artean ageri duen jokaera argi eta garbi azaldu zuen eta “x” txistukariaren eta Hego Euskal Herriko “j” belarearen jokaerari dagokionez, erromantzeetako maileguen eragina zein izan den ere argitu zuen artikuluan.

9.14. Georges Rebuschi irakasleak euskal genitibo erreflexiboez eta ez erreflexiboez eta beren erreferentzia kidetasunaz 1989an saio bat aurkeztu zuen euskalkietako emaitzak baliaturik: *bere* izenordainak Nafarroa Behereko eremu batzuetan erabilera murriztua egiten du eta Nafarroa Behereko beste

eremu batean eta Lapurdin, erabilera zabalagoa dauka. Gipuzkoako eta Bizkaiko erabilera arestiko bi hauen desberdina da eta gainera, hizkera hauetan *beraren* aldaera ageri zaigu. Gaia gramatikaren aldetik lantzen du dialektologiaren aldetik baino gehiago.

9.15. Koldo Artolak 1992an hegoaldeko goi-nafarreraren eremuan zehar bildutako lanabes garrantzizko ugari aurkeztu zituen eta baita Elkanoko Joakin Lizarragaren mintzoarekin alderatu ere. Saio honetan Arakildik hasi eta Artzibar bitarteko herri frankotan azentuera aztertzekeo gaiak eskaintzen dira; Artolak berak, gainera, gaiaz hainbat ohar interesgarri egin zuen, esaterako, Arakilgo Ihabarko azentuerearen salbuespena beste hizkerekiko. Azentu gaie-tarako ez ezik, hainbat eta hainbat ibarretako hizkera aztertzekeo ere balio du-te emaitza aberatsok.

9.16. Euskal tratamenduen bilakaera argitzeko saiakera da Xabier Alberdik 1994an sortu hipotesia, doktoretza tesiaren aitzindaria dena. Euskaraz tratamendu arloko baliabide morfologikoak nola gauzatu diren eta zein hurrenkera erlatibotan gertatu diren azaltzen duen saio hau merezimendu handikoa da; Alberdiren lanak onespenez zabalago jaso du. Hiketa, zuketa eta xuketa alokutiboen hurrenkera kronologikoa argitzen duen atalean sortaldeko euskalkiak deskribatzen ditu, ekialdeko behe-nafarrera, zaraitzuera, zuberera eta erronkaria. Etxepareren bertsoak aztertutik, zuketa alokutiboa baino finkatuago ageri den hiketa alokutiboa zaharragozat jotzen du; zuketaren izaera dialektal marginala ere norabide berean doan argudiotzat dakusa; xuketa da azkenik gauzatu zena.

9.17. Dialektologian ohiz garrantzizkotzat jotzen diren zenbait bilakabide edo forma Nafarroako toponimian nola ageri diren erakutsi zuen Patxi Salaberri Zaratiegik 1996an: *-a + a > ea* dugu leku izenetan Nafarroako mendebalean, baina *-ara* Zaraitzun; Ameskuan *-dana* edo *-dirana* dena, esaterako *Oialac icuzten dirana(c)*, ekialderago, berriz, *baita* bihurtzen da, Orbaibarko Leotz herriko *Elorriabayta* adibidean bezala. Bestalde, Artaxoan, genitibo singularrean aspalditik *-e* nahiz *-re* atzizkiak *-n*-rik gabe erabili dira: *Arotzare gortea, Mariare gortea, Paskuale gortea...* Euskal morfologia historikoan onartutik zeuden ikuspegiak datu berriz bazkatu ditu artikulu honek.

9.18. Hegoaldeko goi-nafarreraren bilakabide batzuk baliatuz, morfologia historikoaz dihardu Gontzal Aldaik 1999an. Metodologikoki berrikuntza zaharrak eta modernoak bereizteko ikertzaileak ezartzen duen arretak, bere prestakuntzaren berri erakusten digu: *-zue > -zie, ditu > tu, gaitezen > gaitzen, dizkio / ditio & tío, ditzan / dezazkien & dezkien*, iraganeko morfeman *-Ø & -n* eta **erazan* oinarriaren erabilera dira, besteak beste, lantzen dituen gaiak. Ezin uka daiteke artikularen interesa.

9.19. Sakana erdialdeko azentuera deskribatzen duen saio bat egin zuen Jose Luis Erdoziak; belarriz bildurik nahiz espektogramaz aztertutik dauden datuak ikusirik, honako ondoriook atera zituen (2000): azentuak ez du balio bereizgarriarik, bokalez bukatzen diren hitzak paroxitonoak dira eta bokalerdiz edo kontsonantez bukatzen direnak, berriz, oxitonoak; harridura inguru-neetan beste azentuera mota batzuk entzun daitezke. Erdoziak bere datuak J. I. Hualdek Sakana erdialdean bilduekin alderatzen ditu.

9.20. Luzaideko hitz eratorrietan ageri diren atzizkien aurkezpen zehatz eta aberatsa egin zuten Patxi Salaberri Zaratiegik eta Peio Kaminok 2001ean; berebat, urte berean, Luzaideko aditz trinkoen paradigmatik ere bildu eta ar-

gitaratu zituzten, ikerkuntzaren aldetik artean ezezagunak baitziren: eztabadako adizkiak, xuketakoak eta hiketakoak datoz artikuluan, *-ke-dun* formak barne. Bi egileok eta Juan Jose Zubirik irainak eta biraoak bildu dituzte Luzaiden 2004an, “sakreak”, eta hori bera egin dute urte bete geroago Goizuetan ere: harridura hitzak eta esapideak, semantikan oinarritutako sailkapena (gorputz eta izaera ezaugarriak txarresteko esapideak), esandakoa indartzeko moduak, irain hitzen mailak eta morfologian oinarritutako sailkapena bereizi dituzte.

9.21. Patxi Arizabalo biologoak artikulua interesgarria argitaratu zuen 2002an aditzaren morfologiaz; euskalkietan hainbat morfema zein ingurune-tan ageri diren ikusirik, egitura moten artean zaharragoak eta berriagoak bereizteko zailtasunaz dihardu: alokutiboko adizkien egiturari eta geografia-banaketan oinarriturik, Bizkai aldean *ditu* aldaera *dauz* baino zaharragoa dela dioen iritzi hedatua erlatibizatzen du. Pluralgileez diharduela, *-it-* eta *-z-* morfemek **edun* eta **eradun* egiturekin duten erlazio kronologikoa aztertzen du Mitxelena-ren 1960ko iritzi zenbaiti ñabardurak eginez. Aditzaren morfologiaren bilakaeran euskararen baldintza fonologikoek izan duten eragina ere adibide zenbait baliaturik aztertzen du.

9.22. Hautsak harrotu dituen XVI. mendeko Joan Perez Lazarraga arabarraren idazki baliotsuaz iruzkin zenbait egin du 2004an Xabier Kintanak: *guk* ‘guk’ izenordaina, *dot* & *dut* adizkien erabilera, *-xe* atzizkiaren erabilera zabala, **ene burure* > *neure* hipotesi ausarta, arkaismo batzuk eta zenbait aditz trinko aipagai dituzte euskaltzainak aldizkarian.

10. KARTOGRAFIA

10.1. Kartografia Euskal Dialektologiara zinez ekarri zuen lehena Jacques Allières ikertzaile kaskoina izan zen: datu bilduma galant bateko emaitzak banan-banan mapetan grafikoki irudikatze sistemak tradizio zaharra dauka Frantzian. 1887an Julien Sacaze-k Ipar Euskal Herrian bildu lanabesak baliaturik, hainbat hitz eta aldaera kartografiatu eta iruzkindu zuen Allières-ek Tolosako *Via Domitia* aldizkarian 1960-61 urteetan. 1977ko *Fontes*-ko saioan Bourciez-en emaitzei iritsi zitzaizkien txanda. 1895ean Edouard Bourciez-ek haur prodigoaren parabola itzultzeko eskatu zion Bordeleko eskualdeko errient guztiei, euskarara ala kaskoinera; osotara, Ipar Euskal Herrian ehun eta berrogeita hamar herritako itzulpenak bildu ziren. Lehenik hogeitaz hitz edo aldaeraren erantzunak kartografiatu zituen Allières-ek eta 1986ko bigarren saioan, beste hogeita hamar; mapa bakoitzeko, hizkuntza-iruzkin bana egin zuen. Parabola horren kartografiatze lan zehatzagoa egiten dihardute orain Gotzon Aurrekoetxeak eta Xarles Videgainek (EHU, 2004).

Allières-ek Bonaparteren euskalki ikuspegian sinesten duen arren, zintzotasunez erakusten digu atlasgintzak dinamika berezia duela eta maparik mapa lan egin behar dela, mapa bakoitzean ageri diren emaitzen egitura iruzkindu behar dela, norberaren gogoan egon daitezkeen aurretiazko ikuspegi dialektalei ez zaiela erreparatu behar: “iparreko behe-nafarrera”, “hegoko behe-nafarrera”, “hego Lapurdi”, “ipar Lapurdi” bezalako lan-terminologiaren erabilerak, arestian aipatu ditugun Bonaparterekiko zorretarik aske uzten du gure ikertzailea. Allières-en lanean atlasetako ohiko terminologia ageri da: bazter eremuak, eremu geolingüistiko koherenteak, banaketa aleatoria, al-

daeren konkurrentzia, aldaeren banaketa zalantzia, aldaeren arteko oihartzunak, aldaera bakartu eta episodikoak, agerraldi esporadikoak, dialektoen arteko erakarpen paronimikoa, polimorfismo lexikala...

10.2. Ana Maria Etxaidek ozenen bustidurak Euskal Herrian ageri duen banaketa geografikoaren berri eman zuen 1976an *Erizkizundi Irukoitz*-eko lanabesetan oinarriturik. Mapan *i* bokal eta bokalardiaren ondoko *l* eta *n*-ren jokaera, ingurune horien beren hitz bukaerako jokabidea eta *ild* eta *ind* taldeena irudikatzen da.

10.3. Rudolf P. G. de Rijk-ek fonologia generatiboan ospetsu bilakatu ziren “erregelen hurrenkera, berrantolaketa eta soiltzea” adigaiak ekarri zizkion Euskal Dialektologiari 1970ean. Mitxelenaren laguntza ere izan zuen irakasle holandarrak ez zituen irakasle makalak Massachusetts-en: Chomsky, Halle eta Kiparsky. Mendebaleko euskaran hiatusetan gertatzen diren bokalen arteko eraginak aztertu zituen: *semee* ‘semea’, *besoo* ‘besoa’ *daroo* ‘daroa’ (Plentzia, 1926), *semé* ‘semea’, *alabé* ‘alaba’ (Gatika, Maruri 1970), *alabe ori* ‘alaba hori’, *neske orrek* ‘neska horrek’ erako egiturak, Nikolas Ormaetxeak 1925ean bildu *alabaak* ‘alabak’, *alabaai* ‘alabei’ erak (Aretxabaleta, Orozko, Laudio), *etxiyak* ‘etxeak’ bitxia (Mundaka) eta Bizkai aldeko idazki zaharragoetan ageri diren hainbat aldaera aztertu zituen. Bokalen elkarreraginak direla eta (*ea* > *ia* > *i* alde batetik, eta *i* eta *u* ondoko *a*-ren palatalizazioa, bestetik), 1860. urtean mendebaleko euskalkian ageri ziren lau eremu finkatu eta kartografiatu zituen irakasle holandar handiak. Artikuluaren bukaeran euskal hizkuntza-atlasaren premia gorria n-garrenez aldarrikatu zuen.

10.4. Denborazko perpausen bilketa lan handia egin zuen Iñaki Gamindek Nafarroako hogeita bederatzik inkestagunetan (1990), hasi Urdiaindik eta Erratzuraino, hego-nafarrerari dagozkion herriak alde batera utzirik. Emaiza aberatsok perpausen bidez argitaratu zituen eta hamazazpi maparen bitartez adierazi banaketak nondik nora doazen.

10.5. Orreaga Ibarrek Nafarroaren erdigunean gauzatu zuen kartografia lana 1994an. Aditzaren morfologiako hamabi ezaugarri hautatu zituen; tasun hauek, alde batetik Imotz eta Basaburua batzen dituzte eta bestetik, bi hauengandik Atetz, Ultzama eta Anue bereizten dituzte; ezaugarri hauetarik zortziren mapak eraiki zituen, betiere, urte bete geroagoko bere tesian jaulki zituen ondorioen ildotik.

10.6. Nafarroako eta Arabako leku-izenetan *-doi* & *-toi*, *-dui* & *-tui*, *-di* & *-ti*, *-du* & *-tu* gehienik zuhaitz, zuhaixka, fruitu, belar eta landareekin erabiltzen den atzizkiak duen geografia-kokaguneaz kartografiako lan bana egin dute Patxi Salaberri Zaratiegik (1991) eta Elena Martínez de Madinak (2002). Batak nahiz besteak dokumentazio lan aberatsa egin dute. Artean inork aipatu gabea zen *-du* & *-tu* aldaera, Iñaki Seguroiak eta Salaberriek nork bere aldetik aurkiturikakoa, Araban ere ageri dela dio Martínez de Madinak.

10.7. Nafarroan izan ditzakeen balio puntukaria, hanpatzailea eta diosal egitekoa ederki argiturik, ibarrik ibar *-ki* aditz atzizkiak zein erabilera duen erakutsi zuten 1995ean Patxi Iñigok, Patxi Salaberri Zaratiegik eta Juan Jose Zubirik. Mapa batean Iruñetik Donostiara bitarte zein jokabide duen zehatz-mehatz adierazi zuten ertzetako herriak Abaurregaina, Urdazubi, Errenteria, Arano, Intza eta Urdaian dituen eremuaren barrenean. Lan eredugarria eta zinez argigarria da hirukoteak ondu zuena.

10.8. *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*-eko baliabide teknikoak lagun, Izaskun Etxebestek eta Koro Seguiolak *zuhaitz* eta *enbor* item-en geografia-hedadura eta esanahia kartografia baliaturik zehaztu dute (2004). Datuak euskararen atlaserako bildu zirenak berak dira. Lekukoen adierazpenek erakusten dutenez, herri euskararen hitz hauek duten adiera eta azken urteetan euskara estandarrean edo literarioan hartu dutena, ez dira beti bat eta bera. *Enborra*, arbola puska ihartua, traketsa izan daiteke, baina baita arbola bu-rua, arbola ipurdia, su bazterrekoa edo egur nahiz haragi txikitzeko erabiltzen den egurra ere. *Zuhaitz* hitzak esanahi markatua du: leku ugaritan haritz lu-zea da, moztan ez dena, materiale gisa baliatzeko erabiltzen dena. Andoainen eta Goizuetan, berriz, bertako haritza da “zuhaitza”, kanpotik etorria ez de- na. Beste leku batzuetan haritza edo zurgai adierazten du hitz honek eta bes- te batzuetan, ‘arbola’ generikoa, are garai batean ere; Baigorriko lekukoak dioenez, orain *arbola* esaten da, baina zaharrek *zuhaitza* esaten omen zuten.

11. BERRI HISTORIKOAK

11.1. Erronkariko euskararen izaera bereziaren aipuak ez dira atzo goize-koak. Jose Maria Jimeno Jurioren 1993ko lan batek dakarrenez, kristau ikas- bidea erakustea eta aitopenenak, euskaraz egiten ziren Bidankozen 1722an, hurrek eta emaztekiek ez baitzekiten besterik. Herriko apezgoa erdietsi nahian zebilen Pedro de Esparzak zioenez: *la lengua bulgar que se abla en el valle de Roncal es distinta en un todo a la que se abla en lengua bascongada en Pamplona y su circunferencia*.

11.2. Badu bere lekua Euskal Dialektologian Mariano Saturnino Mendi- gatxa Ornat (1832-1918) bidankoztarrak. XIX. mendean Bonaparteren be- rriemaile izan zen Donibane Lohizunen eta 1902-1916 bitartean, Azkue bere hiztegia ontzen ari zen artean, lekeitiarraren laguntzaile; Azkueri igorri gutu- nak Alfonso Irigoienek argitaratu zituen 1957an *Euskera* aldizkarian, baina 1984an *Fontes*-en berriz atera zituen Jose Estornés Lasak, itzulpenak eta oha- rrak gehiturik. Azkuek Mendigatxari igorriak 1961ean argitaratu zituen *Eus- kera*-n Faustino de Zerio y Segurak. Ezinago ederra da bidankoztarraren le- kukotasuna eta etnografiaren aldetik balio handia dute atalok: orduko bizi- modua, emaztekiak espartin egitera Zuberoara nola joaten ziren, herritarren arteko haserrealdiak baretzeko “urruxkideak” izeneko baketze saioa nola eta noiz egiten zen, Azkueri zenbateko estimua zion, etxekoekin izan zituen lis- karrak, bilobari euskara erakutsi nahi eta ezinean nola ziharduen... Honda- rreko bidankoztar euskaldunaren gizabidetasuna garden ageri da dialektolo- giaren aldetik garrantzi berezia duten gutunotan. Dena den, *Erizkizundi*-a egin zen garaian, oraino bazen euskaldun zenbait Bidankozen: 66 urteko Ju- liana Arriola lekukoa ageri da 1922-1925 urteen arteko inkestaren erantzule. Zuberoakotzat jotzen ditugun hainbat ezaugarri ageri dira Mendigatxaren es- kutitzetan: Erronkarin ere erabiltzen zirelako frogatzen da hau eta mintzoon lo- tura erakusten du. Erants bedi, bide batez, Xabier Larrañagak gutunotako adizkien zerrendak 1997an argitaratu zituela.

11.3. Bernardo Estornés Lasak argitaratu Erronkariko euskararen hizte- giaren ibilkeren berri hil baino urtebete lehenago eman zuen 1998an. Nafa- rroako Gobernuak 1997an kaleratu hiztegiaren ibilbidea 1930ean hasi zen, baina lanabesak zehaztasunez antolatzeko zeregin idorra Koldo Artola eus-

kalkizale donostiarrak bururatu zuen 1995ean. Nafar nortasunaren ikurtzat dauka Bernardo Estornesek erronkaria eta dioenez, Okzitaniako Biarnoko eta Bigorrako euskarak ziurrenik erronkariaren eta zubereraren antza eduki zukeen. Beste saihetseko euskaraz ere antzera pentsatzen du: Galiza eta Asturias arteko mugaraino iristen omen zen cro-magnonen garaiko euskarak, Bizkaikoaren antza zukeela iradokitzen du, baina ez dakar frogarik.

11.4. Baztango Arizkungo apezgoa Nafarroa Behereko orzaiztar bati eman zioten 1654.ean; izendapenaren aurkako arizkundar guti batzuen adierazpenetan, haren euskara ulertzeko zailtasuna ageri da, baina Claudio Zudaireren ustean (1980), estakurua da hori, apezaren aurkako arrazoiak bestelakoak ziren, ez ziren hizkuntzazkoak; Iruñeko kaputxinoetako Buenaventura de Aoiz fraileak euskarako azterketa egin zion orzaiztarrari eta alde horretatik, Arizkunerako gokia zela erabaki zuen.

11.5. Jose Luis Los Arcos-ek dakarrenez (1974), nafar zenbaitek XVIII. mendearen bigarren erdian Axularren *Gero*-ren ale bati aldetak egin zizkion: bertako hitzen ordain, Nafarroa Garaian erabiliagoak edo ulertzen errazagoak ziren beste batzuk eskuz idatzi zituen. Los Arcosek ordezkatzearen zerehanda luzexkoa dakar.

11.6. Juan Martin de Ibero (1729-1783), “Nafarroako zeruan distiratzten duen euskal idazle berria”, Elkanoko Joakin Lizarragaren aitzindaria, Frantzisko Ondarra zenak aurkitu zuen. Goñerriko Munarritzen sortua, Oltza zendeako Izu herrian nekazari eta abeltzainen apeza izan zen Juan Martin de Ibero eta prediku ugari idatzi zuen euskaraz 1755-1774 urteen artean; Ondarra euskaltzain bakaikuarrak *ASJU* aldizkarian (1996, 1998) argitaratu zituen. *Fontes*-ko 1996ko interes beteko albisteak, Juan Martin de Ibero idazlearen bizikizunak dakartza, zerabiltzan liburuen berri ematea ahanzi gabe. Ondarra egileak dioskunez, Oltzako eta Goñerriko euskara ia berdina zen eta horixe erabiltzen zuen XVIII. mendeko idazle honek, Munarriz aldean ikasia bera, Izu aldekoa ere aprobeixaturik. Aditzean ba omen dira inguru horretakoak ez diren era batzuk ere, erregistro jasoagoa edo estandarriagoa bilatu nahirik idatziak. Hego-nafarreraren azterketarako garrantzi handia izan du aita Ondarra zenaren aurkikuntzak. Berebat, Ollon 1777 urtean egin ziren predikuak direla eta, Martin Joseph Markotegi izeneko bi apezaren arteko zaharrena euskal idazlea izan zela jabetu da aita Ondarra eta Markotegi goñerritarrez berri gehiago dakar zenbait agiri arretaz begiratu ondoan (1996). Artikulu honetan, Goñi herriko XVIII. mendeko idazki batzuetako mintzoaren era batzuk, Juan Martin de Ibero idazle goñerritarrenekin eta Olloko 1777ko predikukoekin alderatzen ditu Ondarrak.

11.7. Asteteren kristau ikasbidearen itzulpen bat bada, 1826an Iruñean argitaratua, 1852 eta 1895 bitartean beste zazpi berrargitalpen izan zituen. Fernando Pérez Ollok (1990) itzultzailea Juan Nicolás Etxeberria izan zela argitu du (1796-1845). Baztandarren semea, gerra arrazoiengatik Iruñean sortu zen, baina apezgoa Berroetan eta Elizondon egin zuen. Joxemiel Bidadorrek dakarrenez (*Materiales*, 2004: 60. or.), egile honexenak dira 1829an, 1840an eta 1841ean Elizondon eman ziren hiru prediku.

11.8. Jose Erasun (1821-1894) Saldiasko apez euskaltzalearen aurkezpena Tomas Otxandorenak egin du (1997). Iruñeko Euskara Elkargoaren kide Erasunek, Antonio Maria Claret-en *Doctrina Cristavaren Catecismo* eta Campionen *Orreaga* balada euskarara itzuli zituen; ortografiaren ere utzi zituen

ideia batzuk idatzirik. Bonaparterekin ere izan zuen harremana apez saldiastar honek, Xabier Erizek 1998an erakutsi duenez: Zugarramurdiko kristau ikasbidea berak ondu zuen printzearentzat, herri horretan apez egon baitzen zenbait urtez. Euskararen aldeko lanetan jarduteko Bonapartek Jose Erasunengan eragina izan zuela diosku Erizek, bestalde, eta Bonaparteren lankide izan ziren beste hamar lagun nafarren izenak aurkeztu ditu.

11.9. 1899an *Manual de gramática bascongada* argitaratu zuen Bitoriano Huizi apez etxarriarraren berri dakar Jose Luis Erdoziak 1999an. Nafarroako apez anitzengan euskaragatik axolagabekeria ikusirik, euskaraz ikasi ahal izateko eta euskara baliarazteko idatzi zuen gramatika Huizik, bertan giputz erak Etxarri-Aranazkoen aldean nagusi direlarik. Liburuan ageri diren Etxarriko edo Sakana erdialdeko ezaugarriak lerro-lerro dakartza Erdoziak, atal lexikoko osagaiak barne.

11.10. 1913ko udan Rudolf Trebitsch etnologialari austriar ezagunak euskalki guztietako hizketa zatiak eta musika atalak grabatu zituen Euskal Herrian eta 1914an Vienako Zientzietako Akademia Inperialaren artxibategi fonografikoan gorde. Idatzi zuen txosten ezinago interesgarriak baditu etnologiaren aldetik aberatsak diren hainbat eta hainbat ezpai; Marcelo Miguel López de Aranak eta Inaxio López de Aranak lana euskarara itzuli zuten eta 1998an argitaratu.

11.11. Europako hizkuntza-atlaserako Euskal Herriaren ekarria zein izan behar duen gogoetatzen diharduela, ikuspegi kritikoa dakar José María Sánchez Carrión “Txepetx”-ek 1974an Glasgowtik idatzi saioak: lau urte lehenago, Nafarroan euskarak duen egoera larria bertatik bertara ezagutu du granadarrak eta etsipena nahiz bakarzaletasun ekintzailea darie bere hitzei. Euskararen gaian giltzarria hizkuntzaren normalizazio-prozesua dela dio, gizarte-normalizazioa bereziki. Saioan, hizkuntza-atlasek alderdi soziolinguistikoa ere izan ohi duten ahanztura, hiztun elebidunen izaeraren ñabardurak, Paris, Buenos Aires edo Caracasko euskal hiztunak, Ipar Ameriketako balizko euskal koine-a (ikus Koldo Zuazo 1988, in *Euskararen batasuna*, 346-352. or.), Bidasoaz bestaldeko errefuxiatu giputz eta bizkaitarren hizkera, klase dialektoak... aintzat hartu behar direla dio.

Koldo Mitxelenaren eta Manuel Alvar-en gidaritzan onetsirik ere, proiektutik sor litekeen lantaldea estakurutzat hartzen du Euskal Hizkuntzalaritzaren egoera negargarria salatzeke: Euskal Filologiako ikasketak bost bat urte geroago finkatu ziren Deustuan eta Gasteizen. Hizkuntzalaritza lantzeko euskal ikertzaileak sortzea eta ugaltzea sistema politikoak erraztuko ez duenez (artean Espainian Franco zegoen agintari), bide bakarra ikertzaileen autofinantziazioa dakusa. Hogei bat urte lehenagoko Mitxelenaren ikuspegia bestelakoa zen: Salamancan “Manuel de Larramendi” euskal katedra sortu zela eta, Donostian Julio Urkixoren liburutegiaren inguruan mintegi bat sortzeko zegoen beharraz dihardu errenteriarak, Satrustegik 1994an *Fontes*-en argitaratu zuen erdi gutun erdi txosten batean. Euskaltzaindiaren estatus apalaz, unibertsitaterik ezaz, euskal hizkuntzalaririk ezaz, euskalkien gaineko monografiaren premiaz, hizkerak deskribatzeko teknikak ikasi beharraz, euskararen etorkizun ilunaz, Erronkariko eta Zaraitzuko euskararen gibelamenduaz eta honelako hainbat gaiz dihardu; Madrilen onespeneren bidez eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaren bitartez, “Julio Urkixo” euskal filologia mintegia eratzeke Mitxelenaren eginahal emankorra da txosten - gutun honetan ageri dena.

12. DOCUMENTA

12.1. Hortensia Viñesek x. mendeko Donemiliaga Kukullako idazkieta-ko bi euskal lekukotasunak iruzkindu eta interpretatu zituen 1987an: *dut* adizkia ageri dela eta, idazlea nafarra zelako hipotesia ematen du, nahiz Mitxelenak 1964an adierazia zuen Araban ere bildu dela aldaera hori eta *dut* forma Errioxakoa izatea ere ez litzatekeela guztiz harritzeko moduko gauza. Urte bete geroago, Alfonso Irigoienek Viñes andereak bi esaldiez eman zen-bait ikuspegiri oharrak egin zizkion.

12.2. Hil baino urte batzuk lehentxoago Gabriel Arestik euskal idazle za-harren hiru bilduma argitaratu zituen aldizkarian: 1971n Axularren adizki la-guntzaileak, 1972an Joanes Leizarragarenak eta 1973an beskoiztarraren beraren lexikoia.

12.3. Jose Maria Satrustegik XVI. mendeko Aresoko kredoa, abemaria eta salbea Nafarroako beste ibar batzuetako otoitzokin alderatu zuen 1990-1991 al-dian. Egile honek berak Lesaka eta Luzaideko testu parekatuak argitaratu zituen 1997an; Lesakakoa Anastasio Etxeberri elizondoarrak (1832-1907) eta Luzaidekoa Nikolas Polit auriztarrak (1834-1906) idatziak dira eta ematen du Politek Etxeberrirena kopia-zi zuela, baina Luzaideko euskarara egokiturik. Argitaratzaileak dioen bezala, jakin nahiko genuke ea Etxeberriren zenbatean kutsatu zuen Elizondoko mintzoaren bidez Lesakarako zen idazkia eta Poli-tek Aurizkoaren bidez Luzaidarako zena.

12.4. Goñerriko Muruzabal herrian 1921ean euskal prediku ugari agertu zen; Aita Intzak zeuzkan idazkiok Frantzisko Ondarraren eskuetara iragan zi-ren eta honek, lan bikaina eginez, hainbat idazki *Fontes*-en argitaratu zituen 1987-1995 bitartean: XVIII-XIX mendeetakoak dira eta batzuek besteek baino leialago irudikatzen dute ibar horretako euskara; hego-nafarrera aztertze-ko garrantzi handia dute Goñerriko idazkiok. Halaber, Ondarrari berari zor dio-gu Bonaparteren Elkanoko, Garesko, Oltzako eta Goñiko lanabesak 1982an argitaratu izana; hauek ere hego-nafarreraren lekukotasun baitezpadakoak di-ra Euskal Dialektologiaren barrenean. Bide beretik, Juan Apezetxea Perure-nak 1975-1990 urteen bitartean *Fontes*-en atalka argitaratu dituen Joakin Li-zarragaren predikuak ere, lanabes egokia dira Eguesibarko euskara literarioa ezagutzeko eta aztertze-ko. Elkanoko apez idazlearen alderdi lexikoa eta esal-dien sorta adierazgarria argitaratu eta iruzkindu zuen aita Polikarpo Iraizoz-koak 1977-1979 urteen artean; egin zituen iruzkinak eta eman zituen adierak zinez egokiak eta zuzenak izan zirela iruditzen zaigu; hego-nafarrera aztertze-ko lan baliotsua da.

12.5. Gesalazko Muzki herrikoa zen Francisco Elizalderen 1735eko kris-tau ikasbidearen hizkuntza-iruzkin zabala egin zuen Patxi Salaberri Zaratie-gik 1994an; Manuel Lekuonak 1973an argitaratu Martinez de Morentin ize-neko bi apez muzkitarren lau prediku ere ezagunak ditugu, baina Elizaldek berea idatzi baino hamarkada batzuk geroagokoak dira predikuok. Salaberri-ren alderaketak salatzen duenez, herri hizkeratik hurbilago daude Martinez de Morentintarren idazkiak Elizalderen dotrina baino. Salaberrirena berare-na da Iruñeko Juan Amendux (1540-1580) olerkariaren bertso ezagunen iruz-kinak ere, 1996an egina; argitalpen bat baino gehiago izan duen olerki honen hizkuntzari dagozkion atal batzuk gehixeago findu zitezkeela-eta, beste argi-talpen bat egin zuen uxuetarrak interpretazio berri zenbaitekin; olerkiak Ipar

Euskal Herriko ezaugarriak ageri ditu; gauza jakina da Amenduxek Ipar Euskal Herriko ahaideak zituela.

12.6. Nafarroako Ameskoabarrengo Artatzan apez izan zen Juan Vicente Diez zudairiarrak (1753-1823), kristau ikasbidearen ataltxo bat euskarara itzuli zuen; idazkia Patxi Salaberri Zaratiegik 2004an argitaratu eta ikertu du ohar filologiko eta dialektologiko ugari eginez (lehen argitalpena Joxemiel Bidadorrek Iruñeko *Diario de Noticias* egunkarian 2001ean egina zuen): Estellerriko, Burundako eta Arabako idazleen lana aintzat harturik, Ameskoabarrengo hizkera mendebaleko euskalkiaren eta (hego-) nafarreraren arteko bidegurutzean zegoelako ondorioa atera du Salaberrik.

12.7. Orreaga Ibarrek Erro herriko testu bat argitaratu zuen 1997an eta hizkera horretan idatziak diren beste batzuekin iruzkindu; uste duenez, XIX. mende bukaerakoa ala XX.aren hasierakoa izan daiteke idazketa. Hizkeraren azterketa arlorik arlo egin zuen.

12.8. Jose Luis Erdoziak Bonaparteren garaiko Etxarri-Aranazko eta Uharteko kristau ikasbideak eta Arakilgoak omen diren predikuak (Arruazun agertuak, Jose Maria Satrustegik berak Fontes-en 1999an argitara emanak) alderatu eta iruzkindu zituen 2001ean. Dioenez, Arakilgo predikuen egilea jatorriz Zugarramurdi edo Urdazubikoa izan liteke, Arakilen edo hego-nafarreraren eremuan apez izana eta predikuetako mintzoa igorlearen eta hartzaileren euskarara egokitu zituena. Erdoziarena berarena da Burundako testu zahar baten iruzkina ere: 1648ko auzi baten berri dakarten berrogeita hamazazpi esaldi argitaratu ditu. Irain batzuk direla bide, Altsasuko Miguel de Aramendia apezta eta Burunda ibarreko alkate Miguel Fernandez de Garaialde elkarren aurka ageri dira. Erdoziak esaldietako formak banaka banaka iruzkindu ditu 2005eko artikuluan. Aitortzekoa da auzian idatziz ageri diren hizkuntza aldaerek ez dutela egungo Burundako mintzoaren antz handirik: euskara literarioagoa dirudite, bilakabide guti jasanik edo.

12.9. Javier Irigaray Imaz-ek Nafarroa Garaian euskara galdua den hainbat eta hainbat eskualdetan landare izenen bilduma egin zuen hirurogeita hamarreko hamarkadan, onddo, alga eta likenen salbuespenarekin; argitaratu 1976tik 1983ra artean egin zuen. Izen horietarik franko euskarazkoak dira, substratu gardena batzuetan eta ezkutatua besteetan, baina erdal izenak ere badakartza. Hiztegietan usu landarearen generoa eta espeziea ez ohi da zehaztu, baina lan honetan bai, izen zientifikoa eta guzti. Ibar ugaritako bilduma denez, izenen geografia-hedadura ezagutzeko baliagarria da lan hau. Bestalde, Nafarroako iparralde euskaldunean ageri ez diren landare edo belar espezie batzuen euskal substratuko izenak bildu zituen Nafarroako hegoaldeko ibarretan.

Ñabardura etnografikoak ere badira glosetan. Gizakia naturatik urrundu delarik, bizimodua aldatu eta modernoagoa bilakatu denez, traktorea sartu denetik eta hainbat belar kaltegarri eskuz erauzten ez direnetik, landare izenen galera handia gertatu da Nafarroan ere. Bestalde, erdaraz mintzatzean ere euskal izena erabili den herri ugaritan, jendeak erdal izen jatorra ikasi orduko, euskal zaharra baztertu du. Hona zein ibarretan bildu zituen Irigarayk botanika izenok: Gesalatz, Deierrri, Ameskoak (1976), Allin, Lana, Itzarbeibar (1977), Orbaibar, Uxue, Artaxoa (1978), Erribera, Mañeru, Estellerria (1979), Aguilar, Berrueza, Los Arcos, Petilla (1980), Goñerria, Olloibar (1982), Etxauribar, Zizur, Galar, Itza, Oltza zendeak (1983).

12.10. Euskara galdu den eskualdeetan lekukotasun gehien eta hoberenak bildu dituen euskalkizalea dugu Koldo Artola. 1971-1975 bitartean Izabako testuak bildu zituen eta 1971-1978 artean Uztarrozekoak: Antonia Anaut, Doroteo de Miguel edo Fidela Bernat berriemaile erronkariarrei bildu datuak aldizkari honetan bere ohiko zehaztasunarekin argitaratu zituen 1977-2000 urteen bitartean. 2002-2005 urteen bitartean Zaraitzuko testuen eta adizkien txanda iritsi da: Jaurrietako, Ezkarozeko, Orontzeko, Espartzako eta Otsagabiko testu eta adizkiak argitaratu ditu. Lan hauetan guztietan ohar interesgarri osatu ditu testuok eta etnografiaren aldetik garrantzia duten berri ugari bildu du; harritzekoa da, euskaraz mintzatu gabe urte franko daramaten hiztun terminal adinekoengandik, almadiez eta abarrez euskaraz nolako berriak bildu dituen; berebiziko merezimendua du Artolak. Bestalde, XIX. mendeko Olaibarko Olaitz herriko idatzizko testu bat argitaratu zuen 2001ean ohar interesgarri askoak eginik: Olaizko idazkia aztertzeke, horren ongi ezagutzen duen Txulapain, Ezkabarte eta Odieta alderdiko euskara ere erabili zuen, iruzkin zehatz eta jakingarriak eginik.

12.11. Saioa bukatzeko, hogeita hamazazpi urteotan aldizkarian corpusaren aldetik argitaratu den eta dialektologiaren mesedetan etor daitekeen ororen berri dakargu; era sintetikoan emateko eginahala egin dugu, anitz baitira idazki zahar eta berriak, herriaren ahotik harturikako narrazio laburrak, toponimo bildumak, erdal eremuan gelditu den substratuko euskal hitzen zerrendak eta abar.

Datuak llabur eta eskematikoki eman beharrak nabardurak galerazi ditu, baina irakurleak jakinen du horiek artikuluaaren barranean biltzen. Dialektologiaren baitihardugu, geografiaren arabera herrialdeka antolatu ditugu bildumak, ez testuen kronologiaren arabera. Hartara, *Fontes*-en lehen zenbakiatarik hasirik, argitaratzaileen arabera antolaturik, lehenik Nafarroa Garaiko datuak dakartzagu, gero Euskal Herriko mendebal-erdialdekoak, Arabakoak, Bizkaikoak, Gipuzkoakoak, Lapurdikoak, Nafarroa Beherekoak eta azkenik Zuberoakoak. Kokaguneari dagokionez, Luzaide Garazi ibarrekoa denez, bertako lekukotasunak Nafarroa Behereko zerrendara sartu ditugu.

Jakina da idazki batzuk herri batekin lotzeko arrazoia ez dela beti bertako mintzoan idatzirik egotea izaten, herri horretan agertu izana baizik, baina horren berri zehatzago izateko, irakurleak artikulura jo beharko du. Bestalde, inoiz testu bateko euskara zehazki zein herritakoa den ez baitakigu, “Lapurdia” edo “Gipuzkoa” bezalako erreferentzia zabalak eman ditugu, gutxi gora behera herrialde horretakoa dirudielako; zehaztasun gehiago nahi duen irakurleak, jo beza idazkira. Gure zerrenda ez da aurkibide bat baino: gainera, testuen iruzkinak ez dira denak berdinak, batzuk sakonak dira eta beste batzuk ez.

Bi zerrenda antolatu ditugu: lehenean idazkiak dakartzagu eta bigarrean datu zerrendak, ia beti toponimiari dagozkionak, usu dialektologiaren alderdi lexikoa lantzeko baliatzen direnak. Hona hemen, beraz, *Fontes*-ko dokumentaz edo korporaz antolatu ditugun bi taulak:

IÑAKI CAMINO

Argitaratzailea	Urtea	Egilea	Nafarroako testua	Garaia	Gaia
Jose Maria Satrustegi	1969	S. Agirre, J. M. Zufiaurre	Urdiain	1965-1966	Maitalearen erromantzea
Jose Maria Satrustegi	1970	Eulogio Gorrotxategi	Urdiain	XX	Sorgin ipuinak
Jose Maria Satrustegi	1970	Jose Maritorea	Amaiur	XX	Sorgin ipuinak
Jose Maria Satrustegi	1971		Sakana, Imotz, Larraun	XX	Ura urte berrian: kantuak
Jose Maria Satrustegi	1971		Baztan, Doneztebe, Etxalar	XX	Ura urte berrian: kantuak
Jose Maria Satrustegi	1971	Lucía Zufiaurre	Urdiain	1966	San Juan kantaita
Jose Maria Satrustegi	1972	Zufiaurretarrak	Urdiain	1966	Neska gudaria
Jose Maria Satrustegi	1975	Juan Amendux	Iruñea	1564	Nahigabe olerkia
Jose Maria Satrustegi	1976	Joakin Lizarraga	Elkano	XVIII-XIX	Dantzak
Jose Maria Satrustegi	1977		Uterga	1547	Ezkon zina
Jose Maria Satrustegi	1977		Espartza-Galar	1557	Ezkon zina
Jose Maria Satrustegi	1979	Perpetua Saragueta	Mezkiritz	1979	Oroitzapenak
Jose Maria Satrustegi	1979	Perpetua Saragueta	Mezkiritz	1979	T. Urtaşun bertsolaria
Jose Maria Satrustegi	1986	Anastasio Etxeberri	Lesaka	XIX	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1986	Etxeberri & Alduntzi	Zugarramurdi	XIX	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1987	Joaquín Arbilla	Goldaratz	XIX	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1988	Serapio Navarro Senar	Laraintzar	1905-1906	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1990		Areso	XVI	Aitagurea
Jose Maria Satrustegi	1991	Areso		XVI	Agurmaria eta Salbea
Jose Maria Satrustegi	1991		Aizarotz, Genbe, Eraul	XV-XVI	Guztietarik
Jose Maria Satrustegi	1992		Uitzi, Arizkuren, Agoitz	XVI	Ezkon zinak
Jose Maria Satrustegi	1995		Suarbe	XIX	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1995	Serapio Navarro Senar	Laraintzar	1903	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1996		Goizueta	XIX	Udaleko aginduak
Jose Maria Satrustegi	1998		Arruazu		Gabon kantua
Jose Maria Satrustegi	1999		Arakil aldea		Predikuak
Jose Maria Satrustegi	2000		Olaitz		Bertoak apezaz
Jose Maria Satrustegi	2002		Ukar	1865	Kristau ikasbidea
Frantzisko Ondarra	1980		Uterga	XVIII	Kristau ikasbidea
Frantzisko Ondarra	1981		Nafarroa	1729	Predikua
Frantzisko Ondarra	1982		Baztan, Nuin, Urdazubi	XVIII-XIX	Predikuak
Frantzisko Ondarra	1993		Obanos	XVIII	Bertoak
Frantzisko Ondarra	1994		Bidasoa aldea	XIX	Predikuak
Frantzisko Ondarra	1994	Javier Ramon Lakoizketa	Bidasoa aldea	XIX	Predikuak
Florencio Idoate	1969	Matxin de Zalba	Iruñea	1415	Gutuna
Aingeru Irigaray	1970	Matxin de Zalba	Iruñea	1415	Gutuna
Martin Larraioz	1972				Parisko bibliotekako agiriak
Manuel Lekuona	1973	F. & F. A. Mtz. de Morentin	Muzki	XVIII	Predikuak
Javier Irigaray	1974		Artaxoa	XX	Bertoak
Javier Irigaray	1979		Irotz	XX	Bertoak
Polikarpo Iraizozkoa	1976		Nafarroa	XVIII	Bertoak
C. Idoate & J. J. Villanueva	1981		Bera	XIX	Udal aginduak
Koldo Mitxelena	1982		Zaraitzu	XIX	Kristau ikasbidea
Jose Estornés Lasa	1982	P. P. Uhalde Mayo	Bidankoze	XIX	San Mateoren Ebanjelioa
Jose Estornés Lasa	1982	S. Anaut, D. de Miguel...	Izaba eta Uztarroze	XX	Esaldien itzulpenak
Jose Estornés Lasa	1985	Zoilo Moso Bezunartea	Otsagabia	XX	Narrazio laburrak
F. J. Oroz Arizcuren	1982		Baztan		Haurdun denaz bertsoak
Eugenio Ulayar	1987	Juan Miguel Gastesi	Irañeta	1850-1854	Bi prediku
Jesús Arraiza Frauca	1988	Juan Bautista Azpirotz	Ibero	XIX	Gurutzebideko kantua
Patziku Perurena	1987	Patziku Perurena	Goizueta	1987	Familiako gutunak
Francisco Elizalde	1994	Francisco Elizalde	Muzki	1735	Kristau ikasbidea
Jesus Goldaratz	1995	Jose Maria Ibarrola	Etsain	XIX	Otoitzak
Juantxo Urdiraz Perez	1996		Abaurrepea		Bertoak apezaz
Pello Etxaniz	1999		Deikaztelu	XIX	Predikua
Joxemiel Bidador	2001		Ultzama	1796	Oharrak zurgin batentzat
Ricardo Urrizola	2004	Martin Ziakoa	Itzarbeibar	1646	Sos auzi bat

Argitaratzailea	Urtea	Egilea	Nongo testua	Garaia	Gaia
Lucien Clare	1974	Martin Iturbe	EHko mendebal-erdialdea	1657	Bertsok Felipe Prosperori
Alfonso Otazu	1975		EHko mendebal-erdialdea	1491	Bretañako gudua
Antonio Unzueta	1982		EHko mendebal-erdialdea		Miserere mei
Bittor Hidalgo	1996	Julian Garcia de Albeniz	Araia	1778	Otoitzak
Jose Maria Satrustegi	1978		Bizkaia	XVII	Maitasun olerkia
Iñaki Gaminde	1997		Elantxobe	XX	Ipuinak
Iñaki Gaminde	1998		Bizkaia	XX	Ume olgeten lexikoa
J. Gómez & A. Romero	2002		Bermeo	1846	Eliz oharrak
Jose Maria Satrustegi	1975		Berastegi	XVIII	Azeri harrapaketa
Jose Maria Satrustegi	1979	Azpeitiako abadesa	Azpeitia	1622	Ezkontza auzia
Jose Maria Satrustegi	1979	R. J. Salazar edo P. A. Díaz	Hondarribia	1778	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1991		Azkoitia	1566	Kantu bat
Jose Maria Satrustegi	1992		Azpeitia	1560	Ezkon zina
Jose Maria Satrustegi	1995	Vicente Zuazola	Gipuzkoa	XVIII	Maitasun kantua
Frantzisko Ondarra	1978-79		Gipuzkoa	XIX	Predikuak
Frantzisko Ondarra	1986	Sebastian Mendiburu	Gipuzkoa	XVIII- XIX	Predikuak
Frantzisko Ondarra	1987	Juan Bautista Azkue	Irun	1783-1787	Predikuak
Frantzisko Ondarra	1993		Gipuzkoa	1747	Felipe V.ari olerkia
Aingeru Irigaray	1979	Abadesa	Azpeitia	1622	Ezkontza auzia
Juan San Martin	2001	Frantzisko Arrate	Eibar	1861-1869	Predikuak
Mikel Olano	2002		Gipuzkoa		Predikua
Jose Maria Satrustegi	1978	Esteban Adoingoa	Lapurdi (+ Urraulgoiti)	XIX	Predikua
Frantzisko Ondarra	1985	Esteban Adoingoa	Lapurdi (+ Urraulgoiti)	XIX	Predikua
Pedro Mari Zabalza	1975	Esteban Adoingoa	Lapurdi (+ Urraulgoiti)	XIX	Predikuak
Jose Maria Satrustegi	1979		Lapurdi	1664	Ezkontza auzia
Jose Maria Satrustegi	1986		Sara, D. Lohizune, Urruña	XVIII	Gutun ofizialak
Jose Maria Satrustegi	1991		Lapurdi	XVI	Espioitza gutunak
Jose Maria Satrustegi	1993		Lapurdi	XVI	Espioitza gutunak
Aingeru Irigaray	1972		Donibane Lohizune	1788	Udal gutunak
A. Irigaray & X. Videgáin	1975		Ahetze	XIX	Ipuinak
J. Garate & M. Zubiria	1973		Uztaritze	1822	Maitasun kantua
Piarres Lafitte	1978	Bernard Borda	Lapurdi	1854	Bertsok
J. M. Floristán Imízcoz	1993		Lapurdi	XVI	Espioitza gutunak
Jose Maria Satrustegi	1969-70	Beltran Arretxe	Luzaide	XIX	Arotz baten diru kontuak
Jose Maria Satrustegi	1971		Luzaide	XIX	Familiako gutunak
Jose Maria Satrustegi	1975	Juana Ezpondaburu	Luzaide		Judu erratua
Jose Maria Satrustegi	1986		Bidarrai, Banka	XVIII	Gutun ofizialak
Jose Maria Satrustegi	1987	Nikolas Polit	Luzaide	XIX	Predikua
Jose Maria Satrustegi	1991		Ugarzan	1415	Guztietarik
P. Kamino & P. Salaberri	2004	Leon Erdozaintzi	Nafarroa Beherea	1913-1918	Familiako gutunak
J. L. Alvarez Enparantza	1980	Año Hegiapal	Sohüta	1973	Narrazio laburrak
Rudolf P. G. de Rijk	1999	Madalena de Jauregiberri	Zuberoa Garaia	1963	Ipuin eta narrazioak

Argitaratzailea	Urtea	Nafarroako onomastika atala
Diego Pascual de Eraso	1969	Corellako euskal toponimia
José María Jimeno Jurío	1969	Artaxoako toponimia
Benito Urtaşun Villanueva	1971	Orotz-Beteluko toponimia
Luciano Lapuente Martínez	1975	Ameskoako toponimia
Anselmo Legardakoa	1976	Utergako deiturak, toponimoak eta oikonomiak
José María Jimeno Jurío	1981	Oltza zendeako toponimia
Pello Apeztexea	1985	Etzalarko oikonomia (1625-1983)
Luis Fernando Etxeberria	1988	Goizuetako toponimia, Artikutzakoa izan ezik
Mikel Erriondo	1988	Artikutzako toponimia
Victor Pastor Abaigar	1989	Los Arcosko toponimia
Nicolas Arbizu Gabirondo	1990	Iturmendiko toponimia
Orreaga Ibarra Murillo	1991	Mezkirizko toponimia
Isaac Santesteban	1992	Nafarroako hidronimia
Joxemiel Bidador	1992	Oloibarko toponimia eta euskal substratu lexikoa
Juan Karlos Lopez-Mugartza	1993	Izabako toponimia
Balbino García de Albizu	1993	Hagionimoak Ameskoako toponimian
Patxi Salaberri Zaratiegi	1993	Iruñeko toponimia
Patxi Salaberri Zaratiegi	1994	Nafarroako toponimo nagusi zenbaitez
Patxi Salaberri Zaratiegi	1997	Nafarroako euskal toponimioez
José Ramón Elorz Domezain	1997	Artaxoako egungo euskal hitzak eta toponimo zenbait
José María Jimeno Jurío	1998	Lizarrako toponimia
Angel Goikoetxea Markaida	1999	Lakoizketak Narbarten bildu landare izen batzuk
Pello Etxaniz	2000	Lizarrako egungo euskal hitzak
Ricardo Egillor	2001	Munarrizko oikonomiak (1790-2000) eta egungo euskal hitzak
Jose Luis Erdozia Mauleon	2001	Etxarri-Aranazko toponimia
Jose Luis Erdozia Mauleon	2002	Bakaikuko toponimia
Orreaga Ibarra	2002-3	Erroibarko eta Esteribarko oikonomiak
Argitaratzailea	Urtea	Nongo onomastika atala
Antton Erkoreka	1979	Bermeoko gorputz izenak
Andoni Anasagasti	1980	Bermeoko itsas espezie garrantzitsuenen terminologia
Mikel Gorrotxategi	2005	Getxoko oikonomiak
Ricardo Ciérvide	1995	Gasteiz aldeko toponimia (1481-1486)
R. Glz. de Viñaspre & P. Uribarrena	2003	Trebiñuko Marauriko toponimia
R. Glz. de Viñaspre & P. Uribarrena	2005	Trebiñuko Sasetako toponimia
Rufino Gómez Villar	2003	Burgosko Beloradoko euskal toponimia
Juan San Martín	1977	Esteban Adoingoak hiztegi bati egin eransketak
Txomin Peillen	1991	Ligi eta Larraine arteko Andoze ibarreko leku izenak

LABURPENEA

Euskal Dialektologiak *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren hogeita hamazazpi urteetan gaindi izan duen agerpena iruzkindu dugu. Gaia nolabait banatu behar eta, euskalkien historia, Bonaparteren lan egiteko moldeak, jakintzagaiaren egungo egoera, Euskal Herria osorik hartzen duten dialektologia lanak, ikerlan supradialektalak edo eremu handikoak, eskualde azterketak, herri bateko euskararen azterketak, mintzo baten atal zenbaiten ikerketak, kartografia lanak, berri historikoak eta lekukotasun interesgarriak dakartzaten atalen errekapitulazioa egin dugu. Hondarrean idazki eta datu multzo dialektalen zerrenda zabala ekarri dugu. Euskal Dialektologia ez da oraino bere goihen gradora heldu, baina aldizkari honetako bereko lan zenbaitek erakusten dute hondarreko hogeita hamazazpi urteak ez direla debaldetan joan.

RESUMEN

Nuestra recapitulación da cuenta de la mayoría de los aspectos relacionados con la dialectología vasca publicados durante los treinta y siete años de *Fontes Linguae Vasconum*. Hemos clasificado los temas desde una perspectiva mitad ontológica, mitad metodológica: historia de los dialectos vascos, visión dialectal decimonónica bonapartiana, situación actual de la dialectología vasca, análisis que tienen en cuenta toda la geografía de la lengua vasca, ensayos supradialectales o de gran extensión, investigaciones regionales, descripciones del euskara de un pueblo, análisis de aspectos dialectales diversos, trabajos cartográficos y noticias de interés histórico. Al final ofrecemos una larga relación de testimonios dialectales escritos de diversa antigüedad. La dialectología vasca tiene aún un largo camino por recorrer, pero esta recapitulación muestra que los últimos treinta y siete años no han transcurrido inútilmente.

RÉSUMÉ

Notre récapitulation montre la plupart des aspects relatifs à la dialectologie basque publiés pendant les trente sept ans de *Fontes Linguae Vasconum*. Nous avons classé les sujets dans une perspective à mi-chemin entre l'ontologie et la méthodologie: histoire des dialectes basques, vision dialectale bonapartienne du dix-neuvième, situation actuelle de la dialectologie basque, analyse tenue en compte dans toute la géographie de la langue basque, essais supradialectaux ou de grande étendue, recherches régionales, descriptions de l'euskara d'un village, analyse des différents aspects dialectaux, travaux cartographiques et nouvelles à intérêt historique. À la fin nous offrons une longue liste de témoignages dialectaux écrits qui datent de différentes époques. La dialectologie basque a encore du pain sur la planche, mais cette récapitulation nous montre que les trente sept dernières années ne sont pas passées en vain.

ABSTRACT

This recapitulation gives an account of most of the aspects regarding Basque dialectology published over the thirty-seven years of *Fontes Linguae Vasconum*. The subjects are classified from a perspective half-ontological, half-methodological: history of Basque dialects, Bonaparte's nineteenth-century dialectal vision, current situation of Basque dialectology, analyses which take the entire geography of the Basque language into account, supradialectal or wide-ranging essays, regional research, descriptions of the Basque spoken in a particular village, analyses of diverse dialectal aspects, cartographic works and articles of historical interest. At the end, there is a long list of dialectal testimonies written at different points in history. Basque dialectology still has a long way to go, but this recapitulation shows that the last thirty-seven years have not passed in vain.